



uk

67. zenbakia / 2004 irailak 17

# EUSKAL JAIA

## 2004

### IRAILAK 24 25 ALGORTAN

### IRAILAK 24 BARIKUA

**17:00 ELKARTEEN AZOKA - GETXO ANTZOKI PLAZAN**  
**EGIZU, BIZARRA LEPOAN, UK, ALBE ETA GEHI HITZARMENA**  
**SINATU ZUTEN ELKARTEAK**

**19:00 ERROMERIA ETA TXOSNA**  
**21:00 KONZERTUA: ENE BADA - SAN NIKOLAS PLAZAN**

### IRAILAK 25 ZAPATUA



**11:00 ELKARTEEN AZOKA - GETXO ANTZOKI PLAZAN**  
**11:00 TXALAPARTA GUNEAK - METRO GELTOKIAN**  
**TXALAPARTA JOTZEKO GUNEAK.**  
**HASI BERRIENTZAKO GUNEA.**  
**HAURRENTZAKO GUNEA.**

**15:00 HERRI BAZKARIA - SAN NIKOLAS PLAZAN**  
**TIKETAK SALGAI BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAN PREZIOA: 10 EURO.**

**16:00 BERTSOLARIAK - SAN NIKOLAS PLAZAN**  
**17:00 ELKARTEEN AZOKA - GETXO ANTZOKI PLAZAN**  
**19:15 DANTZA GARAIKIDEA - SAN NIKOLAS PLAZAN**  
**20:00 KONZERTUA: TTAKUNPA - SAN NIKOLAS PLAZAN**  
**21:30 HOUSE FESTA - SAN NIKOLAS PLAZAN**

ANTOLATZAILEAK




Laguntzaileak:  
GEHI, ALBE, UK,

Lauaxeta eta Jose Antonio Agirre euskaltegiak



Uribe Kostako  
Txalaparta Ekimenetarako  
Sustapen Taldea



GETXOKO UDALAK  
AYUNTAMIENTO DE GETXO

## Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Alfonbra saltzaileak. Asier Mentxaka.
- PLAZA. Leihatila, Josu Esnaola. Photoshop, Gorka Vázquez.
- LEHEN ETA ORAIN. Erandioko Ugartetxe baserria.
- TALAIJA. Beste begirada bat eskualdeari.
- HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- AGENDA.

### SAKONEAN

- ALBUMA. Zerbitzarien etxeak. Asier Mentxaka.
- ARGAZKIA. Tsunami. Mikel Martinez.
- BERBETAN. Mikel Urmeneta. Unai Brea.
- FOTOGRAFIA. Getxoko folk jaialdia. Asier Mentxaka.

### KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea Arte Eder Museoko zinemateka.
- MUSIKA. Getxoko Folk jaialdia. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Euskal ipuinen antologia bat, ingelesez.
- KOMUNIKAZIOA. Euskadi Irratiaren programazio berria eta Iزارo News.
- SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- ELKARRIZKETA. Iñigo Landaluze. Unai Brea.

### EUSKARAZ

- AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

### AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan bat? Esaterako Zuri Haitz jatetxean.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Algortako Jone trainerila, 1980.
- AITORMENAK. Gorka Igartua. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Plentziako jaiak)



30 Mikel Urmeneta



12 Idoia Eizmendi

### Berbetan

Marraztea dauka zaletasun eta lanbide 40 urteko iruinseme honek. Kukuxumusu markak bere denbora gehien kentzen dio gaur egun.



41 Iñigo Landaluze



32 Getxofolk



50 Gorka Igartua



15 Leire Martinez

Udazkenean ere euskarari heldu!

# euskara

¥Maila guztiak ordutegi desberdinetan  
¥EGA larunbat goizetan  
¥Plentzian ere bagaude!



Algortako Etorbidea 104 zbk  
48990 Algorta - GETXO  
Tlf: 94 460 66 71

e-mail: [j.a.agirre@euskalnet.net](mailto:j.a.agirre@euskalnet.net)

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta  
**HELBIBIDEA:** Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171  
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31  
**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru  
**ERREDAKZIOA:** Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Xabier Bilbao  
**KOLABORATZAILEAK:** Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenabeña, Jabi Zabala, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartea  
**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Gorka Vázquez  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martínez (94 491 13 37)  
**HARREMANAK:** Gorka Orueta  
**FILMAZIOA:** Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799  
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz koptatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago  
© Boluntzarreta  
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkartearen Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartean dirulaguntza jasotzen du**  
Itxasgane Etxea / Karitatea 1  
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**GETXOKO UDALA**  
Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**Leioako Udala**  
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**  
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Bizkaiko Foru Aldundia**  
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**Fundación Grupo Eroski**  
Aldizkari honek Eroski Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

**UK**  
Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!  
BBK 2095 0121 10 91 02483676  
Boluntzarreta

gugeu

# Hilaren 24ko hitzordua

**Amaitu dira** oporrak, jaietako azken txupinek jo dute honezkero eta konturatu barik egunak lehenago iluntzen du. Apurka apurka gure betiko zereginetara nagiaz itzuli gara gehienok. Ikasturte berria ere hasi da eta hain zuzen ere esku artean darabilzun UK hau duzu horren beste proba bat. Laburbilduz irakurle, udako ohizko etenaren ondoren atzera gatoz.

Bada, esan bezala sasoi berria hasi da eta baita ondo hasi ere. Getxon euskalgintzan dabilzan elkarteek (Bizarra Lepoan euskara elkarte, Egizu egitasmoa eta Uribe Kostan Txalaparta Ekimenetarako Sustapen Taldea) euskal jaia antolatu dute hilaren azken asteburuan. Erromeria, dantza, musika emanaldiak... eta txosna ere egongo dira bi egunez Algortako San Nikolas plazan herrian giro euskalduna nolabait pizteko asmoz. Aldi berean Getxon euskararen ingruan lanean gabiltzan elkarteok etxola bana ipiniko dugu asteburu horretan Getxo Antzokiaren alboan gure lana ezagutzera emateko. Hara biltzera deitzen dizugu irakurle. Bertan elkar ezagutzeko aukera izango dugu, zuen kritikak eta iritziak entzutekoa...

Kostata lanera bueltatu garen hau nolabait arintzeko hilaren bukaerako euskal jaia eskertzekoa da. Han elkar ikusiko dugulakoan agur bero bat. 4

UK-ko lantaldea

## gutunak

**Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31**

## matematika aplikatua



Goizero erosi > **berria**

[irudia]



ANXERROTA, 2004-05-25

**Jana laga ta lan da lan** / Argazki hau ez dugu Tunisian egin, edo Aljerren, edo Marrakech-en. Zuek, begi zorrotzeko irakurleok, berehala ezagutuko zenuten atzealdean Abra portuko nasa eta saltzaille "mairu" serio hauen oimpean Aixerrorako ibilbide dotorea. Eta hala da, hantxe harrapatu genituen hiru Algortar peto hauek, paella eguneko festa albo batera utzi eta, beraz, *jana laga ta lan da lan*, salgaiak lepoan doroezala "dirham" bat edo bi ataratzeko ahaleginean. / Argazkia: Asier Mentxaka

**Leihatila**

&gt; Josu Esnaola

**Urteberri on**

Urte berri on. Bai, urte berri on diot eta ez naiz okertu, abenduaren hogeita hamaikatik urtarriaren batera dagoen tartea ez baita ezer abuztuaren hogeita hamaikatik irailaren batera dagoenaren aldean. Berri-berria ere ez dakit izango den, aurten aurreko urtean aritu ginenaz jardungo dugula pentsatzen dut: Ibarretxeren plana, gran hermano, Bush eta Kerry, apartheid politikoa, Athletic, borroka amaturia, Irak, gazteak...

Hala ere, berriro izango ditugu hamaika ilusio, hamaika asmo, hamaika amets, zer ginateke horiek gabe? Bai, nik ere zoriontsu izan nahi dut, ez al daukagu, bada, horretarako eskubiderik? Behin sortuko mundura eta horrela bizi behar al dugu?

Beste mundu bat posible dela diote, baina nik ez dut beste bat nahi, nik hemen, ez honelakoan, baina mundu honetan bizi nahi dut, ba al dago, bada, besterik?

Dena den, zer da bizitzea? Esaera batek dioenez bizitzea astiro-astiro hiltzea baino ez da; anarkista errusiar ezagun batek zioenez bizitzea borrokatzea da eta zenbat eta bortitzagoa borroka, orduan eta biziagoa bizitza. Eta nik ez dakit zer den bizitza, baina badakit besterik ez daukagula eta hil artean berari eutsi beharko diogula. Ia gauza garen apur bat zoriontsuago izateko, geure esku ere badago eta. 4

**IRITZIA**

Getxoko euskalgintzako elkarteen eskutik, Kontseiluak bultzatzen duen euskararen aldeko konpromiso kanpainaren aurkezpena egingo da irailaren 25ean San Nikolas plazan. Konpromiso horren beharraz dihardu artikulu honek.

**“Bai euskarari” aldarrikapenetik norbanakoon konpromisoetara**

**Orain dela sei urte** Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak deituta Euskal Herriko bost estadio nagusiak jendez gainezka ziren Bai euskarari! aldarrikatzen. Milaka lagunek euskararen aldeko gure jarrera argia agertu nahi izan genuen ekimen harekin. Bada, orduz geroztik, urtez urte, Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseilua aldarri hura euskararen normalizazioaren aldeko konpromiso bilaka dadin ari da lanean.

Izan ere, azken urteotan, euskarak aurrerapauso oso garrantzitsuak egin ditu gaur egungo egoerara iritsi arte. Gero eta euskaldunagoa da euskal gizartea eta gero eta gehiago dira euskararen aldeko apustua egiten duten herritarrak. Alabaina, horrek ez digu euskararen iraupena bermatzen. Oraindik urruti ikusten dugu etorkizunari baikotasun handiagoz heldu ahal izateko behar den normalizazioa; geroa ez dugu bermaturik, ez lurralde osoan, ezta erabilera-eremu guztietan ere. Horregatik, ezinbestekoa da euskararen normalizazio bidean aurrera egiteko gizarte osoak pauso berriak ematea. Halaber, konpromiso hartze horiek hiru

esparru nagusitan gauzatu behar direla uste dugu:

–Esparru soziopolitikoan, alderdi, sindikatu zein bestelako eragile soziopolitikoek euskararen normalizaziorako eta euskararen babeserako gutxieneko akordioa erdietsiz.

–Eragile ekonomiko-sozialen esparruan, denda, taberna, jatetxe, elkarte zein bestelako eragile ekonomiko-sozialek euskara era normalizatu erabiltzeko aurrerapausoak emanez.

–Norbanakoen esparruan, beste eragile horiez gain gizabanakook ere gure eguneroko bizitzan euskara sustatzeko konpromiso berriak hartuz.

**«Ezinbestekoa da euskararen normalizazio bidean aurrera egiteko gizarte osoak pauso berriak ematea»**

Azken esparru honetan, norbanakoen arloan, zu zeu prozesu honen protagonista izan zaitezten nahi dugu, euskarak aurrera egin dezan norbanakook ere aurrerapausoak eman behar baititugu: dagoeneko hartuak ditugun konpromisoak betetzen jarraituz, baina batez ere, hartuak ez ditugun konpromiso berriei ekinez.

Horretarako, euskararen normalizazioan aurrera egiteko ezinbestekoak diren konpromiso batzuekin zerrrenda bat osatu dugu. Bertan, dagoeneko hartuak dituzun konpromisoak ez ezik, aurrerantzean hartuko dituzun konpromiso berriak ere adierazteko eskatzen dizugu. Konpromiso hartzaile guztion artean sare eraginkorra osatu nahi dugu, euskararen alde gure eguneroko bizitzan pauso txiki bezain sendoak emateko prest gaudenon arteko elkarlana bultzatzeko, konpromiso horiek betetzerakoan ditugun arazoak elkarri adierazteko eta oztipo horiek gainditzeko bidean guztiok batera jokatzeko.

Besterik gabe, eskura ezazu konpromisoen zerrrenda (eskatu zure herriko lantaldeko kideei edota sartu [www.kontseilua.org](http://www.kontseilua.org) webgunean) eta hartu euskararen aldeko konpromiso berriak: guztion artean, guztion indarrez, euskarak dagokion lekua izan dezan. 4

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseilua

**photoshop > gerraontzia Plentzian****Iraganez doa denbora\* beti / ARRIAGAKO UGARTETXE BASERRIA**

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Argazkian, Arkote trainerua gaur egun osatzen duten arraunlariak

## kirola > Plentziako Arkote ikurrindun!

**Hamar dira** aurtan Plentziako Arkote senior taldeko arraunlariak eskuratu dituzten ikurriñak, horietako 8 ligakoak. Denboraldi borobila egiten dabiltza Patxi Bilbao bermeotarraren mutilak. 20 dira Arkoteko senior taldeko arraunlariak, eta bi horiek guztiak gidatzen dituzten patrioiak, eta denen besoen indarra eta gogo beharrezkoa izan da hainbeste ikurrin lortzeko. Uzta oparoa Arkoteko seniorrek bereganatu dutena, baina hamaika dira bestelako mailatan dabiltzan arraunlari arkotearrak ere. Arkote Arraun taldeak, gizonzkoiei dagokionez, haur, kadete gazte eta senior mailan dauzka ordezkariak. Bestalde, emakume arraunlarien taldea ere badauka, haur eta senior mailan. Plentziako Arraun Elkartearen izenagaz jaio zen Arkote 1947an, baina arraunlari plentziarrez gain eskualde guztiko neska-mutilak hurbildu gura izan zituen gero, eta hargatik 1958an Arkote bataitu zuten elkarteak. Arkote Plentziako kai-muturraren gaineko harkaitzen behealdearen izena da, eta harkaitzen gogortasun hori bere egiten ahalegindu da geroztik arraun taldea. Zorionak! m



### EUSKARAREN PIPER ETA GATZA

Hasiberrietzako menua, enpresentzako menu berezia, eta zeure neurriko ikastaroak: euskararen erabilera bultzatzeko, hizkuntz eskakizunak prestatzeko, EGA ateratzeko... Euskara ikasteko hamaika aukera aekn

Udalek subentzionatuta



www.aeknet.net

Unibe Kostako aek: Algorta Tel.: 94 4304734 • Leioa Tel.: 94 4648063 • Sopela Tel.: 94 6764876 • Plentzia/Gorliz Tel.: 94 6773607 902 36 22 94

## moda > jantzi algortarrak Gaudí pasarelan



Garbiñe Urdampilleta eta Juana Ruiz

**Ez da Gaudí** pasarelan parte hartzen duten lehen aldia, baina pozgarria da gureak hain goian ikustea. Jota Mas Ge jantzi-diseinu enpresa getxoztarrak eguneroko lan txalogarriaren saria jaso du berriro ere, eta moda munduko handiak batera dabiltza, eurak ere handi. Garbiñe Urdampilleta eta Juana Ruiz dira aspalditik Jota Mas Ge enpresaren arrakastaren buru eta gidariak, eta jantziak "lagunentzat" egiten zituzten hastapenetako garai hura urrun gelditu da gaurko modaren gailurretik begiratuta. Sasoi batean moda

lantegi zen ganbara hura enpresa handi bihurtu da. Orduko helmugak ahaztuta daude dagoeneko, eta orain... gailur eta Gaudí altuagoen bila abiatu beharko dute, bidea beti legez apurka eginez. Baina begirada hurbilago ipinita, datorren udazken-neguan euren sorkuntza arrakastatsuak soinean ikusi gura dituenak badaki nora jo. m

## kale izendegia > Jose Luis Goyoaga

**Erandioko** ibaiertzaren eta Axpeko kaiaren artean, Bilboko itsasadarraren ondoan, Jose Luis Goyoaga etorbide luzea dago. Industrialari eta politikari bizkaitar hau bertako monarkismoaren buru eta 1909an Bizkaiko Alderdi Kontserbadorearen sortzaileetako bat izan zen. Bizkaiko Liga Monarkikoaren bultzatzaile irmoa ere baguen; alderdi horrek erregezale liberalak eta kontserbadoreak elkartu zituen euskal nazionalismoaren aurrean. 1918an eztabaida bizia eduki zuen Sotagaz Balmasedako batzar-agiriaren inguruan. 1920ko eta 1923ko hauteskunde orokorretan hautagai aukeratu zuten, eta 1924an Unión Patriota alderdiko kide izan zen, baina utzi egin zuen. Gerraostean, Bizkaiko Diputazioaren eta Bizkaiko Aurrezki Kutxako Patronatu-batzordearen presidente izan zen 1947 arte. m

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430 53

Sarikobaso 15

**SPL BAR ESPUELA**  
**ITURRIBIDE**  
BILBAO

- PINTXO GORO-GOROAK
- OSTEGUN KULTURALAK
- ASTEBURUTAN MARTXOIA
- TELEFONOA: 944150565
- ITXURALDATURIK HATOR.

**ELKARTOKIA ETA GIRO JATORRA**

## GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1  
T: 430 22 13  
GETXO

Telletxe 13  
T: 460 02 88  
ALGORTA

*etorri  
eta  
ikusi!!*



ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kizol moda



350 m<sup>2</sup>

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

# Kasinoaren 125. urteurrena

Aisialdia gozatzeko eta olgetarako leku bat sortzeko asmoagaz **65 algortar** batu ziren **1877an**, eta **1.000 erreal kuarto bana** jarrita, Algortako Kasinoa ireki zuten **1879ko udan**

Basagoiti Etorbideko 47.ean eman ditu Algortako Kasinoak azken 125 urteak. 1877ko azaroan 65 algortar elkartu ziren Getxoko Elizateko udaletxean, buruan ideia bakarra zeukatela: "kanpotarrak edota udatiarrak Algortan gelditu daitezten konbentzitzeko, aisialdia gozatzeko eta olgetarako leku izango den Kasino bat eraikitzea", halantxe dio behintzat egun hartan izenpetu zuten agiriak. Gaur egun 200dik gora bazkide dauzka.



Goian, Juan Ramon Celaya. Azpian, Algortako kasinoa 1879an


**1877an agiri** hura sinatu zutenek 1.000 erreal kuarto bana ipini zuten Algortako Kasinoa eraikiko zen lurzorua erosi eta eraikitze-lanak ordaintzeko. Hala ere, agiriak zehazten duen legez, "herri honek itsasoz bestaldean (Kuba) dauzkan semeen" diru-laguntza ere eduki zuten. Handik hiru hilabetera, gaur arte Kasinoa lekutu den eremua erosi zuten: Carmen Careagaren sorora. Eta 1879ko abuztuan gaur arte itxi ez dituen ateak zabaldu zituen Algortako Kasinoak. Hiru solairu dauzka, Kasinoak berak bi bakarrik erabiltzen baditu ere: lehenengo solairuan daude Kasinoa eta kafetegia, goian liburutegia eta orkestraren gunea.

Juan Ramon Celaya da gaur egun Kasinoko presidentea, eta berak dioenez, "Kasinoa ez da gaur garai hartan zena, ingurunea legez, Kasinoa ere gaur eguneko beharretara egokitu da". Begiak itxi, eta ez da gaitza orduko Kasinoko gela buruan irudikatzea: elegante jantzitako gizonak mahaiaren bueltan karta-jokoan, pokerrean, muse-

an... habanar txokorren keak ingururatu, mahai txikitxoak jokorako mahaiaren alboan (edariak ezin ziren jokorako mahaiaren ipini), apustuen berotasuna, txin-txin hotsa... Edota garaiko dantzaldietako xarma, soineko dotoredun emakumeak, orkestraren doinu goxoak... Oraindik ere,

**«1884ko Francisco de Aizquibelen euskarazko hiztegia gordetzen du Kasinoak»**

orkestra lekutzen zen balkoixotik behera begiratzuz gero, aintzinako giroa erraz irudika daiteke. Baina denborak ez du bere egitekoa alperrik egiten, eta gaur egun, orkestraren lekua musika-kateak dauka. Hala ere, dantzaldiak antolatzen darrai Kasinoak gabonetan, jaietan...



Kasinoko altzorrak

125 urte bete ditu aurten Kasinoak, eta garai batean gordetako gauza xumeak gaur egun altxor bihurtu dira, hala nola, liburutegian kontu handiz zaindurik, 1884an Francisco de Aizquibelek osatutako euskara-erdera hiztegiaren lehenengo edizioa, edota Paris-Match aldizkariaren 50. hamarkadako zenbaki ia guztiak. m

## Hil amaieran Euskal Jaia

Getxoko zenbait elkartek **euskara eta txalaparta** nagusi izango diren festa antolatu dute **irailaren 24 eta 25rako** Algortan



San Nikolas plazan jendetza biltzea espero dute antolaitzeek

**Baten batek** jaiak udagaz batera amaitzen direla uste badu, oker dabil. Irailak ere badauka bere eguzkia. Uste horretakoak ei dira Bizarra Lepoan euskara elkarteak, Egizu Getxo Euskaldun eta UKTEST (Uribe Kostan Txalaparta Ekimenetarako Sustapen Taldea) elkarteetakoak, irailaren azken aste-bururako Euskal Jaia antolatu dute-eta. Jaia antolatzeko lanean euren batera ibiliko dira GEHI, ALBE, Lauaxeta euskaltegia, UK aldizkaria eta Jose Antonio Agirre euskaltegia.

Euskal Jaiaren helburua getxoztarrak euskararen eta euskal kulturaren itsasoan murgildu daitezten animatzea da. Hori

jomuga izanda, egun bi iraungo duen festa antolatu dute. Lehenengo egunean euskara izango da protagonista. Gauzak horrela, euskararen inguruan beharrez dabilen elkarteek etxola bana jarriko dute, horrela euren eguneroko lana ezagutzeko aukera

**«Kontseiluaren Konpromiso kanpainaren aurkezpena egingo da San Nikolas plazan»**

edukiko dute bertaratzen direnek (UK aldizkaria barne-barnetik ezagutzeko parada ere izango duzue). Gero, San Nikolas plazan erromeria eta txosna egongo dira, eta Ene

### EGITARAUA

#### IRAILAK 24, BARIKUA

- **Elkarteen Azoka.** Getxo Antzoki plazan. 17:00-21:00. Zapatuan goiz eta arratsaldean.
- **Erromeria eta txosna.** 19:00.
- **Ene Bada** taldearen kontzertua. 21:00.

#### IRAILAK 25, ZAPATUA

- **Txalaparta ezagutzeko eta jotzeko guneak.** 11:00etatik 14:00etara.
- **Kontseiluaren kanpainaren aurkezpena.** 12:00.
- **Herri Bazkaria.**
- **Bertsolariak.** 16:00.
- **Dantza Garaikidea.** plazan. 19:00
- **TTakunpa** taldearen kontzertua. 20:00.
- **House festa.** San Nikolas plazan. 21:30

\* Ekitaldi guztiak San Nikolas plazan egingo dira

Bada taldeagaz batera emango zaio amaiera egunari.

#### Irailak 25, ttakun festa

Bigarren egunean txalapartak hartuko du lekukoa. Musika tresna honen jatorria eta bilakaera ezagutzeko aukera itzela izango da, horretarako goizean txalaparta guneetara hurbiltzea besterik ez dago. Eguerdian Kontseiluaren konpromiso kanpainaren aurkezpena egingo da, eta herri bazkariaren ostean, bertsolari, dantza eta bestelako musika estiloakaz uztartuko da txalaparta. Eta TTakunpa taldearen kontzertuagaz eta House festagaz amaituko da Euskal Jaia. m



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

### LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m<sup>2</sup>ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

**Zatoz!**

**ESKOLA LAGUNTZA**

- Matematika, Fisika...
- Maila guztiak

10 urteko eskarmentua!!!

T.: 655 739 964

**amesti**  
obrak·proiektuak

**Berrikuntzak**  
Etxebizitzak

**Eraikuntzak**  
Lokalak

**Bulegoak**

Basagoiti etorb. 56  
48.991 Algorta  
Tel. 944 915 298  
Fax 944 915 299  
amesti@ameslur.com

**GA**

**GALEA ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA JURIDIKOA, FISKALA LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA  
% 94 460 95 12  
Fax: 94 491 11 31

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Idoia Eizmendi** > Getxoko Udaleko Berdintasun Teknikaria

“II. Berdintasun Plana 2005ean jarriko da martxan”



Idoia Eizmendi Gizarte Zerbitzuen egoitzako bulegoan

**Ikaztegietan (Gipuzkoa) orain 43 urte jaio bazen ere, 7 bat urtetik hona Algorta dauka bizileku Idoia Eizmendik. 9 urte inguru daramatza emakumeen partaidetza sozial eta politikoaren alde lanean, eta gaur egun Getxoko udaleko Berdintasun Teknikaria da.**

—Zein da zure eginbeharra?

—Berdintasun eragile baten egitekoa politika publikoetan genero ikuspegia sartzea eta berdintasun politikak diseinatzea eta bultzatzea da. Getxoko udalean nire eginkizuna Getxoko II. Berdintasun Plana osatzea da. Horrekin batera, beste ildo batzuk jorratu nahi ditugu, besteak beste, Enpoderamiento Eskola bat. Enpoderamiento Eskola izango da Ermu, Basauri eta Getxoko udalen artean jorratu behar dugun proiektu bat. Horren albotik, EHUko Berdintasun masterra eta Parte Hartuz taldea ere badira. Parte Hartuz Zientzia Politiko eta Soziologian osatu duten ikerketa talde bat da, partaidetza ikertzen duena. Azken batean, egin nahi duguna emakumezkoen partaidetza bultzatzea da, eskolaren bidez, eta partaidetza hori bermatzeko osatu nahi dugun foroaren bitartez. Gauza

asko dago egiteko: Harrera Etxe bat egitea daukagu buruan, beste erakundeekin biltzen ere bagabiltza: Udaltzaingoa, Ertzaintza, Epaitegia, Osasun Zentroekin... Guztien artean protokolo bat osatu nahi dugu, tratu txarren aurrean bakoitzak egin behar duena zehazteko. Beste lehentasunetako bat, udaleko beste atalekin bilerak egiten hastea da, eta formazioa eman arlo bakoitzean genero ikuspegia barneratu eta ezartzeko. Eta Plana osatu, 2005eko udaberrirako edo.

—Parekotasuna behartzeagaz jendea ez dator bat: gizon 1 emakume 1. Norbanakoak egingako lana kontuan hartu beharko litzateke gizon zein emakume izan...

**«Enpoderamiento Eskola Ermuak, Basauri eta Getxok jorratuko dugun proiektua da»**

—Ez zait oso ondo iruditzen parekotasuna behartzea, baina gaur egun ez dago beste modurik. Adb.: hauteskundeetan, "lista cremallera" egiten da, ez dago beste modurik emakumeak toki horietan egoteko. Uste dut urrats bat dela, epe baterako balio duena, epe baterako besterik ez, ezin da jokabide egonkorra izan. Berdinak gara legearen aurrean orain 30 urtetik hona, baina hori ez da errealitatea oraindik. m

# Artista handiak Erromon Hilaren 17tik 19ra antzinako bizimodua bizigai

Argazkian, Erdi Aroko azokako lantegietako bat

**Denboran atzera** egingo du Getxok irailaren 17an, Erdi Aroan geldituko du denboraren makina, eta hiru egunean zehar garai hartako azoka baten antza hartuko dute San Nikolas Plazak eta inguruko kaleak: armariak eta zutoihalek atonduko dituzte hormak eta leihoak, lastoak estaliko du lurzorua, eta belar usaintsuek girotuko dute ingurunea.

Dultzaina eta atabal doinuen eritmorra, komediantek antzezenen ordutegien berri emango dute, eta bufoi, malabarista, azi,

kontu-kontalari, fakir eta abarren eskutik Erdi Aroko merkatuan barruratuko da bete-betean bisitaria. Azoka hirutan bana daiteke: alde arabiarra, ingurune kristaua (75 saltoki) eta auzune sefardia (artisauek judutarren gunea). Artisauen lanbidea zuzenean ezagutzeko aukera izango da, antzerkia eta musika ikuskizunak ez dira faltako, arkulariek euren trebezia erakutsiko dute, belatz-ehizaren erakustaldia ere izango da... Azken batean, Erdi Aroko azoka gozatuko du Getxok. m

XXXXXXXXXXXXXXXX  
XXXXXXXX  
XXXXXXXXXXXXXXXXXN

Getxoko euskalgintzako elkarten eskutik, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak bultzatzen duen euskararen aldeko konpromiso kanpainaren aurkezpena egingo da, irailaren 25ean San Nikolas plazan. Kontseiluaren Hizkuntz Eskubideak! Denon Konpromisoa ekimenak hiru konpromiso esparru ditu: soziopolitikoak, ekonomikoak eta norbanakoarena. Azken esparru honetako konpromiso motak azalduko dira Getxon. Horren albotik, euskararekiko zenbait konpromiso betetzeko ardura hartu ahalko du norbanako bakoitzak sinatzeko ipiniko diren konpromiso-paperekin bitartez, bakoitzak gura dituen konpromiso mota eta maila hartuz. Konpromisoa hartzera pertsona ezagunak hurbilduko direla aurreratu dute antolatzaileek.

XXXXXXXXXXXXXXXX  
XXXXXXXX  
XXXXXXXXXXXXXXXXXN

Bigarren urtez jarraian, zirgaiek (ibaian gabarrak eta itsasontziak sokaz tiraka eroaten zituzten emakumeak) orain dela mende bat itsasadarrean egiten zuten lana ekarriko dute gogora Areetan. Getxoko sei bat elkarte antolatuta, 150 bat pertsona antzeztuko duten herri-antzerkia izango da ikusgai hilaren 18an. Ikuskizuna arratsaldeko 19:30ak aldera hasiko da Txurruka kaian, eta Areetako Geltoki plazan amaituko da. Iaz Saltillo ontzia erabili zen ikuskizunerako, baina aurrean beste itsaso batzuetan dabil. Hala ere, ez da faltako zirgaiek bultzatzeko belauntzirik.

**RENAULT ocasión**

**IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON**

“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

**RENAULT BILBO BERRI**  
Bizkerre/k, z/g - ALGORTA  
Tel.: 94 430 68 81  
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO  
Tel.: 94 448 39 00

Leire Martinez > odontologia ikaslea

## Hondurastarren aho osasuna hobetzen

**Ezohiko** oporrak Leire Martinez leioztarrak aurtengo udan Hondurasen bizi dituenak. Odontologia ikaslea izanik, beste ikaskide batzuekin batera elkartasun proiektu batean murgildu da, herri txiroetan aho osasuna hobetzeko asmoz. Ipar Ekialdean dagoen San Barbara herriko etxetxoan izan da beraren "kuartel nagusia", eta hortik "rantxera" baten atzeko partean inguruko herritxoetara ibiltzen ziren zuloz betetako errepideetan barna.



Leire Martinez Hondurasen lanean



ume askori esnearen prezioa dela-eta *coca-cola* merkea ematen dietela.

Bizimodu soila badaukate ere, asko ei daukagu ikasteko bertakoengandik. ezer ez eskuan edo sakelean, baina hala ere alaitasuna atzeman daiteke umeen aurpegietan. Eskerronekoak eta maitagarriak dira hondurastarrak, "etxera gonbidatzen gintuzten aforitan eta txiroak izanagatik ere zeukaten apurra kanpotarro eskaintzen ziguten". Bizitakoa gogoan, pozik itzuli da Leire jasotako esperientziaz, eta datorren urtean Santa Barbara inguruan ikusten du bere burua. m

*teknikak irakasten genizkien etorkizunean beraiek herritxoetan aplikatu dituzten".*

Janari eskasa, argindarrak ez, edozelako etxeak,... urritasunean bizi dira hirigunetik kanpo dauden biztanleak, "horregatik askotan herritxoetatik alde egitean ingurura begiratu eta gutxi egiten genuelako sententziaz penatuta joaten ginen". Elikaduran dauzkaten gabeziak jabetzeko nahikoa da esatea

### «Txiroak izanagatik ere zeukaten apurra eskaintzen ziguten»

Herriz herri dentistarena egiteaz aparte, prebentzioaren garrantzia eta hezkuntza aipatu ditu Leirek herri pobreetako egoera hobetzeko. Horrela, astean zehar txantxarren aurka lanean ibili ondoren, "asteburuan inguru bakoitzeko osasun-ordez-kariak bildu eta prebentzionako oinarritzko

## Leioarako egitasmoak ikusgai kultur etxe berrian



Hainbat proiekturen maketak ipini dituzte erakusketan

**Gure herria** hazten doa. Biztanle kopurua, errepideak, etxebizitzak, pasealekuak, kirol-guneak, aisialdi tokiak,... ugaritzen doaz, baina, benetan nola antolatuko dira hauek guztiak? Zer itxura erakutsiko du gure herriak etorkizunean? Eta gure auzoak? Non eraikiko dituzte etxe berriak? Eta tranbia, nondik igaroko da? Galdera hauen erantzuna Kultur Leioan ikusgai den "Leioa gaur egun: gure auzoak, gure hiria"

erakusketan topa daitezke.

Bideoz eta soinu girotutako aretoan herriko auzo bakoitzaren maketa atonduak daude, etorkizuneko Leioa bisitariaren begi aurrean jartzeko. Udondon oinezkoentzat egingo den bulebarra, Pinuetan Gaztelubideko lurpeko aparkalekua eta frontoia, Lamiako auzoko etxe berriak eta herrian egingo diren berrikuntza gehiago aurki daitezke erakusketan. m

## Kultur Leioa hilaren 23an zabalik

**Eraikitze-lanen** hasieratik hiru urte iragan direnean irekiko ditu atek kultur etxe berriak, irailaren 23an hain zuzen ere. Areto berri honek herrian zehar barreiatutako kultur zerbitzu guztiak elkartuko ditu eraikin berean, hala nola, KZgunea, Gazte bulegoa, liburategia eta Euskara Zerbitzua. Horretaz gain, Kultur Zentroak zerbitzu berriak ere eskainiko ditu: 250 ikusle hartzen dituen auditorioa, arte tailerrak lantzeko aretoak, emaldiak prestatzekoak... Guzтира, sei solairu eta 6.000 m<sup>2</sup> tik gora eskainiko zaizkio herriko kulturari. m

Leioako kultur etxe berria



**BETIKO**  
IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

ibilaldia  
leioasopelana

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

**ERROTULOAK**

**ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK**  
egiten ditugu

**THE BEST**  
UNE-UNEKO ERROTULOAK

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83  
e-mail: hirustab@euskalnet.net

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

www.euskaltegieioa.com

no es tan fácil

ez da hain erreza

**MASTITXU EUSKALTEGIA**

- Euskalduntze eta alfabetatzea
- Ega + habe 1 + habe 2 tituluak
- Ordutegi guztiak
- "Masti klik" autoikaskuntza (Boga)
- Euskara zerbitzuaren beka
- Material didaktikoa
- Pantaila erraldoia
- Hainbat ekitaldi euskaraz

no es tan difícil

ez da hain zaila

Iparragirre etorbidea 79  
48940 LEIOA  
Tel. 94 480 25 80  
www.euskaltegieioa.com

LEIOA ELIZATEKO UDALA

Mastitxu Euskaltegia Leioako Udala



# Agustin deunaren jaiak

Abuztuaren amaierako jai zuri-urdirietako aurpegi batzuk aukeratu ditugu orrialde hauetara ekartzeko, bost egunez herriak bizi izan duen jaigiroaren erakusgarri.



MARI CARMEN, MARI CARMEN, MARI ASUN, FER ETA MARIA JESUS, kapela egunean dotore. Talde honetakoan artean banatu zituzten kapela lehiaketako hainbat sari.



MARIAN ETA EGOITZ, pregoilariak, udaltxeko balkoian jaiari hasiera eman aurretik, biak ala biak kategoria igotzea lortu duten kirol taldeetako kideak: Marian, Erandio-Altzaga saskibalo taldekoa eta Egoitz Erandio B futbol taldekoa.



MARIVI, ARANTZA, IÑAKI, INMA, ANA, CONSUELO ETA MAITE kantaguneak antolatutako ekitaldian: iluntze aldean tabernarik taberna betiko kantuak abesten.



OIER ETA AITZOL, goitibehera jaitsierako partaiderik gazteenak, tramankulu ikusgarrien ordeztu betiko goitibehera soila erabili duten bakarretakoak.



LEBIS: Gau-Txori kultur elkarteko zaldikoek, erraldoiek eta kiliek kolorea eta alaitasuna jarri dute Erandioko kaleetan.



BEGOÑA, aitite-amamentzako dantzaldirik ez dela egon eta jaiak triste igaro dituela aitortu digu.



BERBOTSUK ez du huts egin eta Erandion euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatu du.



LURDES, ANA, MARIAN, ANGEL... Espainiako kartzeletan preso dauzkaten erandiozarrak ebexera ekartzeko eskatzen jaietan ere, beste egunetan bezalaxe.

## Musikale

hilaren 18 eta 19an

**Nazioarteko** Kaleko Musikarien IV. Topaketa ospatuko da irailaren hirugarren aste-buruan Erandioko Astrabudua eta Altzaga auzoetan. Zapatuan, eguerdiko 12:30ean hasita, La Banda de Brailan, A Bout de Soufflé eta Makava taldeak ibiliko dira Astrabudian. Zapatu arratsaldean, 19:30ean, El Combo Crónico, Tambores de Teruel eta La Fanfare Électrique taldeek joko dute.

Domekan, eguerdiko 12:30etik aurrera, Taraf Goulamas, Xarop de Canya eta Bizkaiko Gaiteroak ibiliko dira Altzagako kaleetan. Domeka arratsaldean, 18:00etan, Astrabudian izango dira Zephyrologie, Cian An Drumma eta Sama-Siku Fanfarrea.

Gure herrian ez ezik Leioan, Sestaon, Amorebietna eta Basaurin ere izango dira musikaleko ekitaldiak.

## GOIHERRIK URREZKO DOMINA MUNDIALETAN

Irailaren lehen egunetan Ameriketako Estatu Batuetan jokatu dira lur gaineko Munduko SokatiraTxapelketak eta Erandioko Goierri taldeak urrezko domina lortu du gizonezkoen 560 kiloko kategorian. Zorionak Goierri!

## Euskara ikastaroak cursos de euskera 2004/2005

IRAILA-EKAIN SEPTIEMBRE-JUNIO

- \* Euskalduntze eta alfabetatze-maila guztiak
  - \* Ikastaro bereziak: EGA, hizkuntza eskakizunak mailen egiaztagarriak....
  - \* Ordu-tegiak aukeran
  - \* Bekak eta diru-laguntzak
  - \* Kualifikazio handiko irakasleak
  - \* Todos los niveles de euskaldunización y alfabetización
  - \* Cursos especiales: EGA, lingüísticos, acreditación niveles...
  - \* Flexibilidad de horarios
  - \* Disponemos de becas y ayudas
  - \* Profesorado altamente cualificado
- MATRICULA?EPEA ZABALIK PLAZO DE?MATRICULA ABIERTO

\*CLASES en Astrabudua (IES Astrabudua) y en Erandio (Bekoa Ikastetxea)

**IRATI** moda gaztea opariak  
Torrene 2, ALGORTA  
T. : 94 491 12 71

**LUBERRI**  
Basolanak S.L.

**Basolanak**  
• Zuhaitzen landaketa  
• Podak  
• Itxierak  
• Garbiketak  
• Tratamendu fitosanitarioak  
Lorategien zainketa  
**DEITU!**  
T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

HABEren dirulaguntzaz **ERANDIOKO?UDAL?EUSKALTEG?** Bekoa Ikastetxea  
Desanexión kalea, 4 behea Tel.: 94 467 60 71  
erandio.eusk@euskalnet.net / www.erandioko-udala.net

Urko Gaztañaga > baserritarra

# “Neure burue ez neuen ikusten ofiziña baten”

**Guraso baserritarrik ez** daukaten arren, baserritik bizitzea erabaki dute Urko Gaztañaga sopeloztarrak eta Amaia Uzkudunek. “*Neure burue ez neuen ikusten ofiziña baten barruen beharrea, beti gustu ixen jata baserri mundu hau*”. Iazko udaberrian ekin zioten lanari, lehenengo eta behin 4.000 metro koadroko ortua ereiteko prestatu zuten. Orain, udako uzta apur bat atzeratuta etorri da aurten eta hori batzen amaitzen dabilta, eta aldi berean, negurako produktuak ereiteko lurra prestatzen.

## «Produktu ekologikoak ekoizten ditu baserritar gazte sopeloztarrak»

26 urteko gazte hauen ortutik irten-ten diren tomate, piper, kalabaza, leka, porru, aza, arbi, tipula eta abarrak natural-naturalak dira, produktu ekologiko legez ezagutzen direnak. Produktu ekologikoa izateko arautegi bat bete behar dute ekoizleek: besteak beste, ekoizpenean ezin da ongarri kimikorik, intsektizida kimikorik edota sintetizatutako ongarririk erabili, ongarri organikoak bakarrik erabili daitezke. Baina Urkok azaldu digun legez, gaitzena ez da ongarri kimikoak ez erabiltzea, “*gaxena geure inguru honetan lurra eukitea da, aldeztu aurretik dekozu, gurasoek emonda, edo bestela ezinezkoa da hemen nekazaritzarako lurra erostea*”.



Urko eta Amaia baserritar gazteak Sopelanako baserrian. / Harremanetarako: 656 79 62 11

Ortuko produktuez gain baserriko oilas-koak ere saltzen dituzte Urko eta Amaiak, baina horiek oraindik ez dira produktu ekologikoak. Txakolindegia ere egiten badabilta, baina eurek dioten legez, hori epe luzearako proiektua da. Saltzeko orduan zuzenean saltzea gustatuko lit-

iki, ongarri organikoak bakarrik erabili daitezke. Baina Urkok azaldu digun legez, gaitzena ez da ongarri kimikoak ez erabiltzea, “*gaxena geure inguru honetan lurra eukitea da, aldeztu aurretik dekozu, gurasoek emonda, edo bestela ezinezkoa da hemen nekazaritzarako lurra erostea*”.

## Kotxe bako eguna

antolatu dute hilaren 17 eta 19rako



Txirindulari bat ezinean Sopelanan

**Europako mugikortasun** iraukorraren astea dela-eta, Sopelanako Hall Kulturalak zenbait ekitaldi antolatu ditu. Egitaraua egun bitan banatzen da: alde batetik, irailaren 17an egingo diren jarduerak, eta bestetik, handik egun bira izango den Kotxe Bako egunean egingo direnak.

Barikuan, lerro-irristaketako ikastaro teknikoa eskainiko da Zipiriñe ikastetxean (16:00), eta Udaletxeko plazan beste

ikastaro bat emango da, bide-heziketari dagokiona (18:30-19:30). Bestalde, irailaren 19an ospatuko da Kotxe bako eguna. Elizaren alboan 11:30etatik 14:00etara saskibaloiko hiruko partidak jokatuko dira, giza futbolekin jolasteko aukera ere edukiko du hurreratzen denak, eta puzgari erraldoietan goxatzeko parada ere izango da. Amaitzeko, gogoratu ibilaldi zikloturista 12:30ean izango dela. m

# Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

## Instalazio elektrikoak Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 orduz  
**670 415 732**

LARRABASTERRA

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...  
mantenimendua / etxebizitza, lonja, pabilioen erreformak /  
bonba hidraulikoak / telefonia, ahots eta datuen sareak



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

SATISTEGI



# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA

# LAIKAK Taberna

## Zatoz gure gurera!!

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94.6760328

ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -  
SERVITEC

## Lacofris.s.l.

Y MARKA GUZTIAK  
Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
Y 3 HILABETEKO GARANTIA  
Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA

& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

OSAEIDE? HORTZ? KLINIKA  
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Periodontzia  
PADI

Bidebarri 27, behean esan ALGORTA 94 94 430 76

# 4 bide pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturbarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

# Berangoztarrak Alemanian

Iaz 60. urteurrena ospatu zuen Otxandategi dantza taldeak. Hori dela eta, jaialdia antolatu zuten, atzerriko hainbat talde ekarriz. Horietako batek, Alemaniako Ihna taldeak, berangoztarrak gonbidatu zituen aurten euren hirira, Erlangen-era, joateko. Hala, abuztuaren 11tik 18ra bertan egon ziren otxandategitarak, euskal dantzak eta kantuek erakusten. Adierazi digutenez, oso harrera ona eduki zuten: "Primeran hartu gaituzte, euren etxeetan, eta gainera Berangogaz adiskidetu gura dutela esan digute hainbat herritako ordezkariak". / Argazkiak: **Manu Mier, Nerea Sainz de Murieta, Dirk Thiel**



Simon de Otxandategi dantza taldeko ordezkariak Erlangeneko udaletxean, bertako alkateorde bategaz



Neskak Falkendorf herrian, dantza egin aurretik



Zuberoako Maskarada Höchstädt/Aisch-eko gazteluan



Ezkerrean, alemaniarak Kaxarrankako kutxari eusten; eskuman, berangoztar dantzari bat Alemaniako ohiturak "ezagutzen"



Egun batez 60 kilometroko bizikleta txangoa egin zuten berangoztarrek



Kalejira Falkendorfen, zanpantzar eta guzti. Bertako suhiltzaileen 125. urteurrena zen



Ekitaldi ofizialetatik kanpo ere egon zen dantzarik. Irudian, bertokoak eta hangoak alkarregaz Txotxongilo dantzatzen

Jesus Castro > aurtengo Antolintxu

"Jaiek irauten duten 5 egunak labur geratu zaizkit, baina ederra izan da"



Argazkian, Jesus Castro Plentziako portuan

**Motorrak konpontzeko** tailerra utzi eta aste betez ahalguztidunaren makila hartu zuen eskuan. Lohihartzekoa kendu eta abar-kak, mahoizko prakak eta milarraiadun alkandora jantzi zituen aste betez Jesus Castrok, aste betez, bai, Plentziako alkatearen lekuan egoteko. Are gehiago, aste bete horretan izena ere aldatu zuen: aste betez, Antolintxu izan zen.

Jaietako biharamuna pasata, jaiak, gazteak eta beste hainbat gauza direla eta gogoeta egin du erdi barriar erdi plentziar den Jesus Castrok. 56 urtegez ez zuen sekula ere pentsatu egunen batean bera Antolintxu izango zela, eta proposamena jaso zuenean emazteari esateko "beldur" izan zela aitortu zigun. Baina era berean

"poz handia hartu nuen proposamena jaso nuenean, izugarri ederra izan da". Jaiek irauten duten 5 egunak labur iruditu zaizkio, goiz altxatu eta gaueko 02:00etan oheratzen bazen ere. Aste bete hutsez izan da alkate, baina makila luzerako balu herrian "gauza batzuk" aldatuko lituzkeela azaldu digu, "gutxi baina batzuk bai".

### Gazteentzako oharra

Inoz ahaztuko ez duena: "jaietan antze-man dudan poztasuna, eta jendeak adierazi didan hurbiltasun eta berotasuna". Eta jaien alde txarra aipatzeko orduan, gazteen parte hartze eskasa aipatuko luke, "bai gauzak antolatzeko orduan, eta baita jaietan parte hartzeko garaian ere". m

KURKUDI  
LIBURU DENA  
Euskarazko  
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA  
T: 944 913 402

**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

**BASTARTEA**

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

krimea

Negubide 13  
Tel. 94 463 61 82

**AREETA**

**IKASTAROAK GORLIZEN**

Ikasturte berria martxan da, eta beragaz batera ireki egin dira Kutur Etxeak eta hainbat elkarteek antolatzen dituzten ikastaroetan parte hartzeko izena emateko epeak. Gorlizko Kultur Etxeak margo, eskulan, zeramika, grafosikologia, hunkipen adimen, xake, joskintza, yoga, antzerki, tenis, argazkigintza, sukaldaritza eta musikazko ikastaroak eskainiko ditu, besteak beste. Emakumeentzako doako ikastaroak ere egongo dira.

Harremanetarako: 94 677 40 00

**CORREOS-EK BULEGO BERRIA ZABALDUKO DU**

Datorren urtean Correos-ek bulego berria zabalduko du Gorliz. 150 metroko bulego berrian berezoko harrerarako gunea eta banaketa unitatea egongo dira. Banaketa puntu honetatik banatuko dira Barrika, Lemoiz, eta Plentziako gutunak ere. 100 posta-kutxatila berri izango dira, gainera, bezeroen eskura, eta 8 postari ibiliko dira lau udalerrietako gutunak banatzen.

**MOUNTAIN BIKE IBILBIDEA**

Gorlizko XIII. Mountain Bike ibilbidea antolatu du Mendibike elkarteak. Irailaren 19an, domeka, jari dute hitzordua 9:30ean polikiroldegian. Aurten ibilbidea egitea erabaki dute antolatzaileek, txapelketa beharrean. Ibilbide luzeak 45 bat km edukiko ditu, laburtxoago bat ere bada, eta urteentzako ibilbide bat ere prestatu dute polikiroldegian bertan 10:30etik aurrera.

**PLENTZIA ETA BARRIKA****Txipioko padurako izaki eta landareak lasai biziko dira ekologistek esker**

Argazkian, Barrika eta Plentziako lurretan lekutzen den Txipioko padura

**la 10 urte** igaro dira Txipio Bai talde ekologistak Txipio ingurunekeo padura babesteko erronka bere gain hartu zuela. Izan ere, borroka horretatik hartu zuen taldeak izena. Borroka amaitu da, eta ekologistak izan dira garaile, baina Txipio Bai-ko kide batek dioen legez, *“ekologistok ez dugu berez inabazten, gauzak dauden bezala utz dituzaten lortzen dugu”*. Hala ere, garaipen usaia dauka Auzitegi Gorenak plazaratutako epaiak: Txipioko padura inguru publikoa dela eta

babes naturaleko gunea, beraz ezin dela bertan eraiki. Barrika eta Plentziako udaletxeek Txipiorako zeuzkaten eraikitze-proiektuak ez dira gauzatuko, beraz. Txipio Baiokoez pozez hartu dute epaia, baina era berean, auzitegietan beste 10 auzi dauzkatala gogoratu gura izan dute. Ia hamar urte igaro behar izan dira, baina taldeko kide batek adierazi digun legez: *“arlotan honetan dabilen jendea animatu gura nuke, honek adierazten duelako gauzak lortu egin daitezkeela”*. m

# Irailak 17-30

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37 • Faxe: 94 491 58 31

**ERAKUSKETAK****PLENTZIA**

► **Jorge Gomez-en margolanak.** Goñi Portal kulturala. Irailaren 16tik 30era arte.

**GORLIZ**

► **Leire Fernandez arte erakusketa.** Erakustaretoa (Eloisa Artaza kalean). Irailaren 15etik 22ra arte.

► **Javi Lopezen arte erakusketa.** Erakustaretoa (Eloisa Artaza kalean). Irailaren 23tik 30ra.

**ZINEMA****PLENTZIA**

► **Intermission.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Irailak 17, barikua. 22:00.

► **Eduardo Manostijeras.** Haurrentzako zinema. Goñi Portala. Irailak 18, zapatua. 18:00.

► **Las voces de la noche.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Irailak 24, barikua. 22:00

► **Kill Bill (1).** Gazteentzako zinema. Goñi Portala. Irailak 25, zapatua. 22:00.

**MUSIKA****ERANDIO**

► **Musikale.** Alzaga eta Astrabudua. Irailaren 18an, zapatua: Astrabuduan 12:30ean La Banda de Brallan, A Bout de Souffle, eta Macava; Alzagan 19:30ean El Combo Cronico, Tambores de Teruel eta La Fanfare Electrique. Irailaren 19an, domeka: Alzagan 12:30ean Taraf Goulamas, Xarop de Canya, eta Bizkaiko Gaiteroak; Astrabuduan 18:00etan Zephyologie, Clan An Drumma eta Fanfarre Sama-Siku.

**GETXO**

► **Ene bada.** Euskal Jaiaren ekitaldien barruko kontzertua. San Nikolas plazan (Algorta). Irailak 24, barikua. 21:00.

► **Ttakunpa.** Euskal Jaiaren ekitaldien barruko kontzertua. San Nikolas plazan. Irailaren 25ean, zapatua. 20:00.



Irailaren 19an egingo da Kotxe Bako Eguna

► **Kotxe bako eguna**

**Zeuk ere lagun dezakezu!**

Kotxe bako eguna urteko egun danatan egin beharko litzatekeela diote askok, beste batzuek ez dute kotxe bako egunean ere kotxea utziko. Etorbizuneko mundu garbiago baten alde orain lan egin beharrean, beragaz amesten dugu hori lortzeko kutsadura sortaraziz. Horra mundu aldrebes honen paradoxa. Garraio publikoak, tren, autobusa, bizikleta, oinak... aukera asko daude kotxea hartzearen aurretik, baina hain gara alperrak! Uribe Kostan, besteak beste, Getxon eta Sopelanan ekitaldi bereziak egingo dira Kotxe bako egunean. Gutxienez egun batez, langun ezazu!

• **Non:** Eskualde osoan • **Noiz:** Irailaren 19an

► **House festa.** Euskal Jaiaren ekitaldien barruan. San Nikolas plazan. Irailak 25, zapatua. 21:30.

► **Elkarteen azoka.** Euskal Jaiaren ekitaldien barruan. Getxo Antzoki plazan (Algorta). Irailaren 24 eta 25ean, barikuan 17:00etatik aurrera, eta zapatuan goizean 11:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean 17:00etatik aurrera.

**BESTEAK****GETXO**

► **Erdi Aroko azoka.** San Nikolas plaza eta inguruko kaleetan (Algorta). Irailaren 17, 18, eta 19an. Goizez 11:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean 17:00etatik 21:00etara.

► **Herri Bazkaria.** Euskal Jaiaren ekitaldien barruan. San Nikolas plazan. Txartelak salgai Bizarra Lepoan euskara elkarteko egoitzan. Prezioa: 10 euro. Irailak 25, zapatua. 15:00.

► **Dantza Garaikidea.** Euskal Jaiaren ekitaldien barruan. San Nikolas plazan. Irailak 25, zapatua. 19:15.

► **Garagardoaren azoka.** Getxo Artea rugby taldearen eskutik. Portu Zaharreko aparkalekuan. Irailaren 19a arte. 17:30tik 23:00tara.

► **Lantegiak.** Kultur Etxeko lantegietan parte hartu ahal izateko izen-emateko epea zabaltzen da. Irailak 27, astelehena.

**SOPELANA**

► **Marrakzi lantegia.** Zirimarra elkartearen eskutik. Hall-Kulturalean. Irailak 20, 22, 24, 27, eta 29. 18:00.

**ERANDIO**

► **Mendi-irteera.** Erandioko Mendigoizaleak elkartearen eskutik. Murgara irteera. Irailak 26, domeka. Izena emateko telefonoa: 615717562, martitzenetan 19:30-20:00.

► **Mendi-irteera.** Atxazpe Mendi taldearen eskutik. Lizarrusti-Lekunberri irteera. Irailak 26, domeka. Izena emateko: 944671901, martitzen eta eguenetan 19:00-20:30.

► **Dantzaldiak.** Belinda y Compañía orkestaren eskutik irailaren 19an, domeka, irailaren 23a plazan. Eta Pergola orkestaren eskutik irailaren 26an, Josu Murueta plazan.

**PLENTZIA**

► **Valentziara bidai.** Urriaren 9tik 12ra. Izena emateko epea: irailaren 19a arte. Prezioa: 160 euro, Disnopolis, Ozeanografikoa, Zientzien museoa eta Terra Miticarako sarrerak barne.

**LEMOIZ**

► **Zaldi-azoka.** Goiko-Mendi Klub hipikoan Irailak 25, zapatua.

# aldai

**TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

**VASA**  
20º ANIVERSARIO  
URTEURRENA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@euskalnet.net](mailto:vasa@euskalnet.net)

[albuma]



Santa Klara



Erromoko "Zaintzailearen etxea"



Zugatzarte etorbidea



Miramar etxea



Maria Kristina parkerean inguruan



Soltura alarguina

## Zerbitzarien etxeak

Getxon asko dira jauregi eta etxalde ikusgarriak. Hauetako askoren alboan etxetxo bat egoten da, familia aberatsaren zerbitzura egoten ziren morroien bizileku estua izaten zena. Hantxe bizi ziren zaintzaileak, txoferrak, sukaldariak, garbitzaileak... Garaiak aldatu egin dira: dirutzak agortu, jabetzak eskuz aldatu, etxebizitzaren salneurria ikaragarri hazi... Eta jakina, etxetxo hauen jatorrizko funtzioa ere aldatu da. Album honetan etxetxo horien ale batzuk dituzue.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Txomintxu ingurua



24 UK

Los rosales



Arriluze jauregia

Lezama Legizamon



UK 25

## Tsunami

Mikel Martinez

Hauxe duzue Mikel Martinez argazkilari algortarrak helarazi digun irudi enigmatikoa. Guri, inoiz horrelakorik ikusi ez badugu ere, tsunami bat ekarri digu gogora argazki eder honek. Eta zuoi zer?



[berbetan]

Mikel Urmenetak marraztea dauka zaletasun eta lanbide. 40 urteko iruinsemea da, eta abizen bereko Asiskoren anaia nagusia. Baina horrek ez dauka hainbesteko meriturik. Bai, ordea, hainbat argazki eta marrazki lehiaketa irabazi izana. Sanferminetako kartelarena, esaterako, birritan, aurtengoa barne. Hain zuzen, Sanfermin jai batzuetan sortu zuen, lagun bigaz batera, denbora eta indarrak gehien kentzen dion proiektua, Kukuxumusu kamiseta marka. Bidaiazale amorratua ere bada. Han hemen marraztuz irabazitako sosa-kaz eta beti ere amamak abalaturako maileguakaz, munduan zehar ibiltzeko gauza izan da Mikel Urmeneta. Elkarizketa hau Andaluzian zegoela egin diogu, izan ere.

# Mikel Urmeneta

## Kamiseta zoofilikoak

Testua: **Unai Brea**

—Kukuxumusuk 15 urte dagoeneko...

—Bai. 1989an sortu genuen hiru lagunek: Txominek, Koldok eta hirurok Urte hartako Sanferminetan jaio ginen eta gutxika-gutxika leku askotara zabaldu gara, baina Sanferminei lotuta jarraitzen dugu hein batean. Sanferminak gure aurkezpen-txartela dira, nolabait.

—Sanferminetako harrikada izan zen, ala?

—Hasiera batean oso txarto ateratu zitzaigun. Hasiberri onak legez, kamisetak uztailearen 1ean eskaini genizkien dendei, eta ordurako denek zeuzkaten erosketa guztiak eginda. Taberna, harategi eta hala-koetan saltzen hasi behar izan ginen, lagun-ekuetan azken batean, eta kale saltzaile aritzeko baimena eskuratu behar izan genuen, kamisetak kalean eta oihuka saldu ahal izateko. Lehen urte hura oso kaxkarra izan zen, baina behintzat balio izan zigun sortu genuena jendearen gustokoa zela eta huts egin zigun bakarra ikuspegi komertziala izan zela konturatzeko.

—Hasierako asmoa Sanferminei soilik lotutako zeozer egitea zen?

—Ez, hasierako asmoa Sanferminetako kamiseta bat egitea zen saiakera gisa, eta

horrekin batera beste hiru zeuden, denak Euskal Herriari lotutako gaiekin. Euskal Herriko kamisetak egin nahi genituen baina souvenir ildotik aldentuz, edo hura irauliz. Bai bertokoentzat bai kanpokoentzat balioko zuen kamiseta sortu nahi genuen, kultur gaiak aipatuz baina modu desberdinean.

—Eta zelakoa zen lehen Sanferminetako kamiseta hura?

—Benetako *shock* bat sortzen saiatu ginen. Kamiseta hark ez zeukan zerikus-

### “Euskal kamisetak egin nahi genituen, baina souvenirren ildotik aldentuz”

rik gaur egiten ditugunekin. Zuria zen, odola ziruditen orbanek bete, alboan zulo batekin, eta zezen baten logotipoa bularrean. Zezenak harrapatutako norbaiten kamiseta irudikatu nahi zuen.

—Zelan bururatu zitzaizuen izena?

—Euskal marka bat sortu nahi genuen, eta horregatik euskarazko izena jarri nahi genion. Gainera, gatz eta piper pixka bat eduki behar zuen, eta bestetik hiruroi asko gustatzen zaizkigu animaliak, eta natura oro har. Hortik ateratu zen kukuxu-

hitza, arkakusoari deitzeko hainbat tokitan erabiltzen den euskal hitza, eta gero hortik kukuxuaren musura pasatu ginen. Izen hori aukeratu genuen marketing-arau guztien aurkakoa zela jakin arren. Izen laburra behar omen da, gogoratzeko erraza... Hala erabaki genuen, uste genuelako jendeari iritsi egingo zitzaiola, esaten jakingo ez bazuten bere. Eta hala da. Lehen aldiz irakurrita inork ez daki esaten, baina denak gogoratzen dira gutaz.


—Norrekin marrazten zuen hasieran?

—Egiazki, neronek zuzendu dut hasieratik marrazketari dagokion guziaz. Txomin diru kontuez arduratzen zen eta Koldok pentsatu egiten zuen, gerentea edo halako zeozer izan da. Gainera, azpikontratatuta geneukan —edo marrazkiak eskatzen genizkion behintzat— nire anaia.

—Zure anaia ere nahikoa marrazkilari ezaguna da. Kukuxumusu estetikan eraginik eduki du?

—Bada, ez. Seguruenik alderantzizkoa

Azken hiruzpalau urteotan Kukuxumusu ia denbora guztia hartu diola aitortzen du Mikel Urmenetak >



### Kukuxumusuren aurtengo niki batzuk

Hona hemen Mikel Urmenetaren sortze gaitasun agortezinak emandako kamisetetako batzuk.



izan da. Asisikok nik baino askoz hobeto marrazten du, baina bera komikitik zeterren; haren marrazkiak beteagoak ziren, landuagoak. Nirea, berriz, sinpleagoa da, umeen modukoagoa edo. Baina berehala ohartu ginen estilo errazak askoz arrakasta handiagoa zuela landuak baino. Ia hasieratik, Kukuxumusu marrazki erraz eta umeentzako moduko horien bitartez saiatu da mezuak zabaltzen.

—Eta zein mezu zabaldu gura duzue?

### “Berehala ohartu ginen estilo sinpleak arrakasta handiagoa zuela landuak baino”

—Kukuxumusu mundua bere modura ikusten duela baino ez dugu esan nahi. Eta ez dugu inola ere irakatsi edo kritikatu nahi. Batez ere inguruan daukagunaz barre egiten dugu, eta batez ere gure buruaz. Ez dakit Kakaxumusu izeneko kamiseta ikusi duzun. Euliz inguratutako kaka ikusten da bertan, eta azpian The Shit Factory dio. Gure enpresak ere baditu bere hanka sartzeak, bere arazoak. Eta zer hobe hala adieraztea baino. Bizitzaz eta gizakion ohiturez barre egiten saiatzen gara. Barregurea ematen dit galdezka datozkidanean: zer adierazi nahi zenuen marrazki horrekin? Marrazkiak egiten ditugunean, ez dugu hainbeste pentsatzten adierazi nahi dugunaz.

—Kukuxumusun mordotxu bat zaudete beharrean. Zuk baino ez duzu marrazten?

### “Gurekin Sanferminek alaitasun pixka bat irabazi dutelakoan nago”

—Ez. Asisikok, Txema Sanzek —beste iruindar batek— eta hirurok marrazten dugu egun. —Eta zelan bururatzen zaizkizue ideiak?

—Gutxi gorabehera, neuk osatzen ditut beti bildumak. Baina denetarik egon dadin saiatzen gara. Irudi *heavy*agoak egon daitezela, xuabeagoak, mezu potoloagoekin, ez horrenbeste... Nik mezua ematen diet eta beraiek nik esandakoa egiten dute gutxi gorabehera, nahiz eta azken boladan Txema bere kabuz dabilen gero eta gehia-

go. Benetan ona da, eta horrela jarraituz gero laster hartuaraziko dit erretiroa.

—Ideiak sortzea planifikatutako lana da ala gehiago da tabernako barran egitekoa?

—Denetarik dago. Hori bai, Kukuxumusuko pertsonaiei egokitu beharra dago: nire behitxoak, nire arditxoak... Estilo horri lotuta eta datei lotuta gaude. Horren barruan, nahiko askatasun handia dago.

—Sanferminetako gauetatik ideia bat baino gehiago sortuko zen segurantzean...

—Askotxo! (Barre). Sarritan egiten duguna zera da: animaliak jarri gizakiak dauden lekuan. Eta ideiak barra-barra datoz. Behi bat komunean kaka egiten irudikatzea besterik ez da behar. Edozein egoera erabiltzeko modukoa da guretzat. Hemen ez dago inspirazio konturik ez halakorik. Zer garen behin burmuinean sartuta, etengabe etortzen dira marrazkietarako ideiak.

—Zenbat zor diozue Sanferminei?

—Ez dakit. Sanferminak oso garrantzitsuak dira markaren irudirako, baina gure zabalkunderako ez dira hain garrantzitsuak izan. Hemendik kanpo kamiseta saltzen hasi ginenean, inork ez zituen ezagutzen gure Sanferminetako kamisetak. Euskal Herrian askok ezagutzen gaituzte horiengatik, baina horrekin zerikusirik ez daukan

gauza pilo bat ere egin dugu. Jende askok horiengatik ezagutzen gaitu. Uste dut Sanferminekiko zorra kitatuta dugula.

—Eta zenbat zor dizuete Sanferminek zuei?

—Gurekin alaitasun pixka bat irabazi dutelakoan nago. Kanean gaude etengabe eta jaietara datozen askok zuzenean lotzen ditu Sanferminak gurekin. Nolabait, kalea alaitu dugu eta ohitura batzuk kendu ditugu: lehen beti zuriz jantzita zihoazenez orain koloredun kamiseta bat daramate. m

DIDAK  
hamilton  
IDIOMAS

San Nikolas  
IKASTOLA

## SATURDAY PLAY-SCHOOL

3-9 urteko euskaldunentzako INGELES ikastaroa

Urritik Ekainera, larunbatetan

• San Nikolas Ikastolan (Algorta) • Talde txikiak

• [www.didakhilton.com](http://www.didakhilton.com)

Informazioa eta izena emateko:

Didak-Hamilton Idiomak / Dr. Landa, 6. 48600 Sopela. Tel: 94 676 30 12

[didakhilton@euskalnet.net](mailto:didakhilton@euskalnet.net)

9E+I

BEGIRALE  
IKASTAROAK  
2004

**NOIZ:**  
Urritik Maiatzera  
2004-2005

**IZEN EMATEKO EPEA:**  
Irailaren 24rarte

**INFORMAZIO GEHIAGORAKO:**  
Bizarra Lepoan Euskara Elkarte  
Karitate kalea 1, 10 bulegoa  
48991 Getxo  
94 491 43 57  
[bizarralepoan@euskalnet.net](mailto:bizarralepoan@euskalnet.net)

**BALDINTZAK:**  
Gutxienez 18 urte izan beharko dituzu Abenduaren 31an  
Praktikak Getxoko taldeetan  
Getxoko Talderen bateko kidea izanez gero Udal laguntza  
(NANren fotokopia, 2 argazki eta abonarea-144€ BKK 2095 0019 50 9102257479)





ESKOZIAKO SHIRLEY PIPE BAND

# Munduko musikak Getxon

Getxotik mundura eta mundutik Getxora. Iraileko lehen lau egunak munduko hamaika herrialdetako doinuakaz jantzi dira, eta urrutiko herritarrek euskal tresnen xarma ezagutu dute Getxoko Folk jaialdia 20. urteurrena ospatu duen honetan. Grammy musika latinoaren saria jaso zuen gau berean, Kepa Junkeraren trikitixak Ibon Koteronen albokagaz bat egin zuen Getxon.

Eta jaialdian parte hartu zuten 12 taldeen doinuen lekuko izan ziren hamaika bidetatik Getxora heldutako 45.000 ikusleak. Emanaldirik jendetsuenak La Volee d'Castors talde quebecarrarena eta Toure Kunda senegaldarrarena izan ziren, baina esan beharrik ez da Koteronen albokak eta Kukuma talde euskaldunak ere bertaratuak liluratu zituztela.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**




LA VOLÉE D'CASTORS (QUEBEC)



LA VOLÉE D'CASTORS (QUEBEC)




KOTERONEKIN JO ZUTEN TXALAPARTARIAK (EUSKAL HERRIA)




KILEMA (MADAGASKAR)




TOURÉ KUNDA (SENEGAL)



TOURÉ KUNDA (SENEGAL)



ZOOBAZAR (MADRIL)



GILLES CHABENAT



SIDY SAMB (SENEGAL)



TOURÉ KUNDA (SENEGAL)




SIDY SAMB (SENEGAL)




IBON KOTERON (EUSKAL HERRIA)



ZOOBAZAR (MADRIL)



LA VOLÉE D'CASTORS (QUEBEC)



BESELCH RODRIGUEZ (KANARIAR IRLAK)



KILEMA (MADAGASKAR)



JENDEZ GAINEZKA EGON ZEN KARPA JAIALDIAN



KUKUMA (EUSKAL HERRIA)



ZOOBAZAR (MADRIL)

**AEROBIC**  
IKASTAROAK  
EUSKARAZ



**NOIZ**  
URRITIK EKAINERA  
BITARTEAN · ASTEAN 3  
EGUN (ASTELEHEN,  
ASTEARTE ETA OSTEGUN)

**ORDUA**  
20:30ETATIK 21:30ETARA

**PREZIOA**  
20 EURO BAZKIDEEK ETA  
25 EURO EZ BAZKIDEEK  
(HILABETERO)

**LEKUA**  
SAN NIKOLAS IKASTOLA

**IZENA EMATEKO**  
94 491 43 57  
BIZARRALEPOAN@EUSKALNET.NET

[zinema]

Arte Eder Museoko Zinemateka

**Animazio japoniarrari** eskainitako zikloa martxan da, **urriaren 9ra arte**

**Bilboko Arte Eder Museoa** 22 urte daramatza zinemaren klasikoak ikusteko aukera eskaintzen. 1982an areto txiki bat egokitu zuten museoan film klasikoak eta ez-kometzialak eskaintzeko. Gogoan dauka Jose Julian Bakedanok, museoko Jarduera saileko zuzendariorde eta Zinematekako arduradunak, John Ford zuzendariari eskainitako zikloagaz ekin ziola ibilbideari. Hilero zuzendari bati zuzendutako zikloak egiten dituzte, eta Ford-*ez gain Orson Welles* (bere heriotzean egindako atzerabegirakoa), *Andre Delvaux*, *Ken Loach* eta beste maisu batzuen lanak pasa dira Zinematekaren oihaletik. Baina aintzindari *ez gain, gure garaiko zuzendari *ez badaukate lekua, besteak beste, izan dira David Lynch eta Chris Marker-en zikloak ere.**

**«Iaz 17.000 ikuslek baino gehiagok gozatu zuten zinema eskaintzagaz»**

Museoko zaharberritze lanak egin zirenean, Zinemateka lektuzeko auditorio berria eraiki zen, 200 eserlektutik gora dituen. Iaz 17.000 ikusle baino gehiagok gozatu zuten Zinematekagaz, eta Bakedanoren esanetan: *“Zinemateka oso finkatuta dago, horren ezaugarri da Madril, Valentzia eta Bartzelonako Zine-*



Jose Julian Bakedano zinematekako arduraduna

*matekakaz elkarlanean gabiltzala”*. Horrez gain, Bilbon urtean zehar estrenaitu ez diren filmak ematen dituzte udan. Orain Animazio Japoniarraren zinearen txanda da, eta ostean Pánico taldeari eskainitako zikloa izango da. m



**Jakingarri**

- **Non:** Arte Eder Museoan
- **Noiz:** eguen, bariku eta zapatuetan
- **Ordua:** 18:00etan eta 20:00etan
- Urriaren 9ra arte Animazio Japoniarri
- **Sarrera:** 2 euro
- **www.museobilbao.com**

[musika]



Argazkian Xabi Brixton (www.brixtonrecords.com)

**Brixton Records**

Erromoko musika denda eta zigilu independentea

**Brixton musika** denda Erromon lekutu zen orain dela 8 urte. Soul, punk, rock&roll, eta batez ere musika beltzean eta jamaikarrean berezitatutako denda da. Urteak aurrera joan arren, biniloak ere saltzen jarraitzen du, eta disko *ez gain, arropak eta osagarriak ere saltzen ditu*. Orain dela 4 bat urte disko zigilu independentea sortu zuten, dendari lotua: Brixton Records. Musika jamaikarra (ska, reggae, dub...) kaleratzeko zigilu bereziak ez zeudelako sortu zen, beraz, Brixton Records. DDT zigiluagaz batera, *Starlites* (Errioxa) taldearen maxia izan zen plazaratu zuten lehen lana. Hala ere, bakarlaneko lehen samplerra

*Brixton Cats & the Rudies* izan zen, bultzatuko zituzten taldeen abestiakaz osatuta. Besteak beste, hurrengo taldeak hurreratu ditu bere altxora: Akatz (Bilbo), TTak! (Donosti), Starlites, Proyecto Secreto (Belgika), Basque Dub Foundation, N.Y. Ska Jazz Esemble (New York), Mr T-Bone (New York), Alberto Tarin (Valentzia)... Horren albotik, taldeen kontratazio agentzia ere badaukate eta nazioarteko zenbait zigilu diskografikoren banaketaz arduratzen dira Euskal Herrian eta Espainian. Nazioarteko taldeen kontzertuak gurera hurbiltzen saiatzen dira eta hainbat jaialdi ere antolatzen dituzte (Adb. Erromoko Ska jaialdia). m

diskoak

**To the 5 boroughs**  
Beastie boys  
EMI



Hip hop-eko hirukoterik bihurrienak (bai eta alferrenak ere: orain dela sei urte plazaratu zuten azken diskoa, *Hello Nasty*) New York hartu dute kantugai, eta hiri horretako bost barrutiei eskaini die lan berri hau, omenaldi legez. Azkarrak, argiak eta garratzak, Beastie Boys (Adam Horowitz, Yauch eta Michael Diamond) itzuli dira, George W. Bush helburu daukatela. Gogoe-tarako gonbidapena.

**A ghost is born**  
Wilco  
DRO



Jeff Tweedy-k, kritikaren talde mimatuaren buruak, sekulako oinazeak eta menpekotasunak jasan zituen (uneoro pilulak hartzen zituen buruko minak arintzeko) bigarren disko hau “erditzen” zebilen bitartean; orain, Tweedy osatzen doa. Wilco-ren lan berria lasaia da, baina abestiek kaoserako joera daukate: asko leun hasten dira; amaitu, berriz, lurrikara bezala. Disko arraroa, aparta eta zintzoa.

**Dantzaldiko erreginak**  
Neubat  
Metak



Gasteiztik datorren laukote gazte honek eskarmentu handia dauka; izan ere, taldeko bik, Kanda (gitarra eta ahotsa) eta Atxux (baxua), Sorkun abeslariagaz jardun dute azken urte biotan. Neubat-en lehenengo diskoak gogor kolpetuko ditu gure belarriak: rock sendoa, (gaur egun oso modan dagoen ‘stoner’ kutsukoa), gogorra, melodiatsua eta aldi berean freskoa.

Ami Aula de Arte

Musika eta Arteko profesionalak zuzentzen dute gure ikastegia, guztiak ere goi mailako prestakuntza sendodunak. Musikan baneratu nahi duten guztiei bide hurbila eta praktikan oinarritua eskaintzea da gure helburua.

Alangobarri, 2  
48992 Algorta - Getxo  
Tel: 626 74 55 23 / 665 74 27 25

- Pianoa eta beste musikatresnak lantzeko eskolak, bakarkakoak eta edozein adineko zale zein profesionalentzat
- Musikaren Teoria eta Musika Hizkuntza eskolak
- Perfekzionatze Ikastaroak
- Kontzertuak sustatzea
- Kantu errepertorioa
- Hitzaldiak
- Pintura Eskolak

## esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (XXIII)

## Ez dago itxurarekin fidatzerik

Modako hiri bat. Abuztua. Turistek hartuta dituzte toki garrantzitsuenak. Toki garrantzitsuak. Bere garaian, halaxe izendatu zituzten hiriko agintariak kanpotarrentzat erakargarriak izan zitezkeen guneak. Duomo ingurua, piazza nagusiak, goi mailako jostunen dendak kokaturik dauden kaleak, goi mailako jatetxeak kokaturik dauden kaleak. Goi mailako jendeak goi mailako tokietara joateko ohitura baitu. Diruak dirua deitzen du. Edo horrela uste dute, behintzat, boteredunek. Baina batzuetan estatistikak ez dira betetzen. Batzuetan, ezagutza asmo hutsez, gune "chic" horietatik aldendu eta hiriaren benetako izaeraren bila abiatzen diren bidaiariak aurki daitezke. Halako bidaiariak lasai asko igaroko du arratsaldea periferiako parke batean, alboan duen mozkorrak esaten dionari adi. Ziur aski, nekez aurkituko du Cicero hoberik. Zeren mozkor horrek deskubrituaraziko baitio hiriaren benetako aurpegia. Kontatuko dio nola hirigunearen diardiratik at geratzen diren aldeetan, 30 urteko gazteek 10 urteko umeei bizikletak lapurtzen dizkieten gero salgai jartzeko. Esango dio nola, jarleku batean eserita zegoen batean, lasai asko eta inorekin sartu barik, gazte batzuk gerturatu eta joka hasi zitzaizkion, sekulako jipoia emanez. Eta polizia etorri zenean, gazteak ez, mozkorra atxilotu zuten, eskandalu publikoagatik. "There are no good times", botako dio orduan. Ez dago itxurarekin fidatzerik. Etxera bueltan, turistak harro-harro erakutsiko dizkie senide zein lagunei modako hirian ateratako argazkiak eta erositako opari garestiak, aireportuan maletak fakturatzera koan hainbeste buruhauste eragin zizkieten opari berberak. Bidaiariak, berriz, ezer gutxi ekarriko du berarekin. Joandakoan eraman zuen motxila bera, arropa zikinez beterik. Baina opor egunetan bizi izandakoek ez dute preziorik. 4

## Euskal ipuinen antologia bat, ingelesez


Frankfurteko azokak jasoko du datorren hilean liburuaren aurkezpena

**Renoko** Unibertsitateko Euskal Ikasketa Zentroaren ekimenez, laster izango da kalean "Basque short stories" liburua. Lan honek hamalau euskal idazle ezagunen –Bernardo Atxaga, Inazio Mujika Iraola, Joseba Sarrionandia, Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano, Xabier Montoia, Lourdes Oñederra, Arantxa Iturbe, Javi Cillero, Iban Zaldua, Juan Garzia, Pello Lizarralde, Ixiar Rozas eta Karlos Lizasoro– ipuinak biltzen ditu, euskaratik ingelesera zuzenean itzultitakoak. Euskal literatura mundu anglosaxoniarraren eza-gutza emateko asmoarekin, Renoko Unibertsitateak abian jarritako Basque

## «Renoko Unibertsitatearen ekimena da Basque short stories liburua»

Literature Series delakoaren barruan kokatu beharra dago ipuin antologia hau. Zehazki, serie horretako lehen alea dugu "Basque short stories".

Linda White eta Mari Jose Olaziregi bildumaren arduradunen arabera, hemen-dik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, euskal literatura garaikideko izenbururik esanguratsuenak argitaratzen joango dira Basque



Basque Studies Library: <http://basque.unr.edu/>

Literature Series-en bitartez. Ez da erronka makala, ingeleserako itzulpenak euskara bera oinarritzat harturik egingo baitira. Horrek, jakina, arazoak ekar ditzake, gutxi baitira halako lan bat bere gain har dezaketen itzultzaileak. Ipuinen antologian, esate baterako, bost itzultzaile aritu dira lanean: Amaia Gabantxo, Elizabeth Macklin, Kristin Addis, Margaret Jull Costa eta Linda White bera.

"Basque short stories" liburuaren aurkezpen ofiziala Frankfurteko liburu azokak jasoko du, urriaren 6an. Ekitaldian, bildumako zuzendariak ez ezik, antologian parte hartu duten zenbait idazle eta Eusko Jaurlaritzako zein Euskal Editoreen Elkarte ordezkariek izango dira. m

## liburuak



**Euskal urtea ohituraz...**  
J. M. Etxeberria  
Ibaizabal

Aurreko atzera eta atzekoz aurrera irakur daiteke liburu multidisziplinari hau. Euskaldunok gure Amalurreko historia luzean bizitako eta sortutako hamaika ohitura, jai, ospakizun, gertaera, ipuin, pasadizo, abesti, esaera eta beste hainbat biltzen ditu. Egutegi bizi honek nor eta zer izan garen gogorarazten digu.



**Hiru ahizpa**  
Juan Kruz Igerabide  
Erein

Josune, Aintzane eta Amaia amarekin bizi dira, jostunak laurak. Aita istripu batean hil zitzaizen, eta gogor egiten dute behar bizimodua ateratzeko. Gazteentzako nobela labor hau arretaz irakurtzen baduzue, xalotasunari eginiko kantu bat entzungo eta bizitzaren indarra ikusiko duzue.

Euskadi Irratia > 104.4 FM

## Programazio berria

lazko aldaketak sendotzea eta aldaketa horiei eusteko saio berriak plazaratzea dira irradi euskaldunaren aurtengo asmoak

**Saio berriakaz** betea iragarri du Euskadi Irratiak denboraldia. Iaz saio aitzindari asko ixildu eta magazine jaioberriak pauso sendoz uhineratu ziren: 7 eguneko goizeko magazinea sortu zen, *Faktoria*; arratsaldean saio berri bi uhineratu ziren: *Arratsaldea* eta *Mezularia*; eta *Iputargiak* limurtu zuen gaua. Gorka Etxebeste Euskadi Irratiko Programazio arduradunak azaldu legez, "iaz eginiko aldaketa sakonek emaitza onak eman dituzte, aurtengo sendotzea da gure erronka".

Pasa den urtean sortutako bizkarrezur berria indartzeko saio berriak ipiniko dituz-

## «Goizeko 5:00etan hasi eta gaueko 2:00ak arte irratia zuzen-zuzenean»

te martxan aurtengo ere. 70.000 entzule inguru dituen irratia aurtengo berrikuntza nabarmenak eguerdian eta gauean izango dira: eguerdian Garikoitz Udabek zuzendutako duen *Aperitif* saio berria izango da. Bestalde, gau partean Pello Zabalak gidatzen zituen *Klasikoak Gaur* eta *Kantaita* saioak desagertu eta horien ordez, alde batetik, Asier Leozek zuzendutako *Eraginpean* saioak eutsiko die uhinei, eta horren ostean, egunaren arabera programa ezberdinak eskainiko



Susana Mujika Faktoria saioaren aurkezlea

dira. *Egunbete* gaueko albistea ere eraberritu dute, eta egunetan zehar entzundakoari tarte bat zabalduko diote. Asteburuetako berrikuntzak: bata, *Bitakora* bazkalosteko programa izango da, eta bestea, *Eta hitza jolas bihurtu zen* saioagaz tartekatuz, hamaibostero Jose Mari Iriondok gidatutako duen *Tranzisioa Bertsotan*. Gauzak horrela, goizeko 5:00etatik hasi eta gaueko 2:00ak arte, 21 orduko zuzeneko irratia eskaintza uhineratzen du Euskadi Irratiak. m

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
T: 94 491 27 34

## Izarone news &gt; informazio gunea

Aspaldiko Komunikazioa taldeak webgune bat sareratu du eguneroko informazio eta iritzi-iez. Bertan Euskal Herriko eguneroko albisteak irakur daitezke, eta Euskal kultura, politika eta euskal diaspora ditu ardatz Getxotik sareratzeko den informazio webgune honek. Izaroneko zuzendari Arantza Goyoagak azaldu digun legez, "gunea sortzeko ideia Aspaldiko izeneko internet foro-ko lagunen arteko eztabaida batean sortu zen". Orain dela 2 urte hasi ziren ideia garatzen, eta orain finkatze eta hobetze garaian dira. Goyoagak gunea modu honetan definitu du: "Euskal Herriko webgune informatiboa mundu osoko euskal herritarrentzat, eta euskal herritarren ikuspuntuagaz". Lagun bik daramate gunearen pisua, baina hamaika kolaboratzaile daukate.

[www.izarone.com](http://www.izarone.com)



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

**94 491 13 37**

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba  
Arnedo 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48960 Gebo  
uk@aldizkaria.biz / tel: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

## uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8

01 SOPELNETs.L.



Jokoak sarean ¥  
Txapelketak ¥ Internet ¥  
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥  
ordenagailuen salmenta  
zerbitzu teknikoak  
kontsumitzeko gaiak, zuzen

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA  
e-mail: 01sopelnet@terra.es  
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax: 94 676



**GALEA  
ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA  
JURIDIKOA, FISKALA  
LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA  
% 94 460 95 12  
Fax: 94 491 11 31

**irabazi UKrekin**

**MUGI**  
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak  
x Erreuma x Kiroleko

deitzen duenak  
**masaje bat debalde**  
irabaziko du!!

94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

Mendieta 2, SOPELA 17 67

[sarean]

## Abiadura biderkatu

ADSL guztien abiadura bikoiztuko da azarotik aurrera, eta prezioek berean jarraituko dute

**Telefónica** jakinarazi duenez, hurrengo hilabetetik aurrera Internetera sartzeko ADSL erabiltzen duten guztiek loturaren abiadura bikoiztuta ikusiko dute, txakur txiki bat gehiago ordaindu barik. Berez, berri ezinhobeia ematen du, ez da hala? Baina zoritxarrez gauzak ez dira beti diruditen bezain onak, Telefónica tartean dela bereziki.

Zergatik? Ulertzen erraza da: alde batek abiadura bikoiztu bai, baina prezioa ez dutelako inondik inora murriztuko. Erabiltzaileek behin eta berriro aldarrikatu dute zabalera handiko konexioen prezioak jeitsi behar direla, gaur egun ordaintzen diren 40 euro horiek larregi direlako poltsiko gehienentzat. Internet beharrezkotzat jotzen badugu, nolatan beti konektatuta egoteko honelako prezio altua ezarri?

Jakin behar da Telefónica gero eta

merkeago zaiola Internetera helbideratzen duen trafikoa: gaur egungoa, esaterako, orain dela bost urte baino 50 aldiz gutxiago (bai, berrogeita hamar!). Beraz, abiadura bikoiztea ia dohainik aterako zaio. Gainera, bikoiztutako bakarra jasotzearen abiadura da, ez bidaltzekoarena, beraz, hainbat zerbitzu etxetik erabili gabe jarraitu behar izango dugu (geure webgunea baldin badaukagu, adibidez, nekez kudeatu ahalko dugu etxetik).

Euskaltelek ere ez ditu gauzak askoz hobeto egin. Kablea erabiltzen dutenei ere abiadura handitu die, baina hori bai, abiadura motela dutenak (128k-koak, alegia) eskaintza honetatik kanpo geratu dira. Hau da, abiadura handitzea gehien behar dutenek ez dute hobekuntzarik jasoko. Internet bultzatzeko modu bitxiak asmatzen dituzte gure 'telekoek'. m

## webgida

**Sarean aurkitu ditugu >**  
[www.blancamaria.com/algorta](http://www.blancamaria.com/algorta)



### KONGRESUA

>[www.blancamaria.com/Algorta](http://www.blancamaria.com/Algorta)

Algortari buruz ez dira orrialde asko Interneten. Honako orrialde luuuuzeeeee honetan (bai, bai, orrialdea, ez webgunea osoa, zeren eta orrialde bakarra aurkituko dugu) auzo honen hainbat argazki eta informazio erabilgarri aurkituko dugu. Baita egileak, Blanca Mariak, gustokoak dituen jatetxeen telefonoak ere!

### MUSIKA

>[Musicplasma.com](http://Musicplasma.com)

Idea bitxia eta ondo antolatua: zure gustuko musika taldea idatzi, eta webguneak berak horren antzeko taldeak iradokiko dizkizu. Gustuko musika topatzeko modu berria.

**Iñigo Landaluze >** txirrindularia

“Txirrindularitza talde kirola da, eta saribako lan zikin handia egin behar da”



Argazkian, Iñigo Landaluze

**Uribe Kostako txirrindulari bakarra izan da aurtengo Frantziako Tourrean. Iñigo Landaluze Algortako semeak 27 urte dauzka eta lau daroaz profesional, den-denak Euskaltel taldean. Berarentzat denboraldia ia amaitu dela esan daiteke, azkenean ez duelako Espainiako Itzulira joan beharrik eduki. Horrela, aukera eduki dugu beragaz berba egiteko txirrindularitzaren gaineko kontuez.**

—Oso txarto zaudete taldean hain Tour eskasaren ostean?

—Oso gogorra da, urteko helburu nagusia delako. Lan asko egiten da planifikazioan, eta gero huts eginez gero... Horren ostean, Espainiko Itzulia baino ez dago. Taldea nahiko jota dagoela esan daiteke. Ekainean oso ondo genbiltzan, eta denek asko espero zuten gutaz.

—Hori izan daiteke arazoa, jendeak gehiegi espero izatea?

—Bai, baina kazetariak sortzen dute giro

hori. Dena dela, argi dago iaz zelan ibili ginen ikusita, Mayo ekainean zelan ibili den ikusita... ilusioa pizten dela.

—Zenbateraino da txirrindularitza talde kirola? Azken batean, entrenamenduetan nahiko bakarti ibiltzen zarete, eta lehiaketan ere bakarrak irabazten du, ez taldeak...

—Taldea kirola da, eta saribako lan zikin handia egiten da. Hiru asteko itzuli batean talde lana oso garrantzitsua da. Baina jakina, bakarkako lan handia ere egin behar da.

—Izan ere, talde burua eta laguntzaileak

dauzkan kirol bakarretakoa izango da...

—Hala da.

—Eta zer moduz moldatzen da norbera laguntzailea denean?

—Ondo. Nork bere zeregina daki eta normaltasunez onartzen du. Gainera, Euskaltelen denok edukiten dugu geure aukera urtean zehar.

—Zelan eusten diozue pisuari?

—Eustea ez da zaila. Zailena denboraldi hasieran jaitea da. Gitxi gorabehera, denok dakigu zein pisu eduki behar dugun. Hala ere, batzuetan harritu egiten gara, uste baino

**«Gustoko dut mendiko etapetan ikuspegia gozatzea; oso inguru ederrak daude»**

gehiago argaltzen garelako. Nik, iaz, nire pisu egokia baino kilo bi gutxiagok amaitu nuen Tourra. Hau da, 66-67 kilo.

—Eta zenbat neurtzen duzu?

—1,79.

—Benetan zaudete argalak, ba...

—Bai. Daukagun itxuragatik, gaixorik gaudela ematen du.

—Gustoko daukazu bizikletagaz pasean ibiltzea?

—Bai, oso. 60 kilometro lasai-lasai egitea gauza ederra da.

—Eta bide batez inguruei begira joan zaitzke... Alpe eta Pirinioetako etapa gogorretan badaukazue tartetik ingurune eder horiei begiratzeko?

—Askok ez. Konturatu ere ez dira egiten asko. Nik, berriz, asko begiraten diot inguruarri; hala esaten didate beti. Jakina, ni lasterketan gertatzen denari ere adi egoten naiz, baina gero telebistako irudiak ikusi eta egia da, alde batera eta bestera begira egoten naiz. Gustoko dut begiratzeko. Merezki du, askotan ikuspegi ederrak daude eta. m

# Gurean bizi diren animaliak

Aurreko Akabuko Punte baten, itxosoaren inguruan aritu ginen; orduan, bertan bixi diren hainbat animalia aipatu genituen. Hurrengo lerroetan ere, animaliak izango ditugu hizpide, baina oraingoan, lehorrera joko dugu. Bertan bizi diren ugaztun, intsektu edo eta narraztien izenak gurean nola esaten diren landuko dugu. Egunen baten, agian zerura ere begiratuko dugu, baina hori, beste baten izango da.



**Pisuak, fabrikak, kaminoak** gure inguru honetan gero eta nagusia- go badira ere; zelai eta baso gutxi lotzen badira ere, ez pentsa animaliarik paraje bizi ez denik. Uste dugun baino animalia gehiago dago, horietariko asko ostenduta bizi diren arren. Kostaldean, Azkorriko edo eta Gorlizko pinudietan, esate baterako, **ardillek** ikus daitezke alde batetik bestera saltoka. **Sugelindek, muskerrak, zirunek** (sugegorriak)... bertan egoten dira eguzkiaren berotasunaren bila. Udebarrian, **marigorri** eta **mariposen**

itzulipurdiei begiratzea sano alaigarria da. **Grilluk** ikustea, bestalde, ez da kontu arrunta, baina entzun, fasil entzuten dira euren kantak. Barnealdeko basoetan, berriz, **basotxarrik, komandresa** eta **azkunnarrak** bezalako ugaztunak egoten dira. **Kirikolatzak** (kikirolatza, kirkiolatza) ere, kaminuetan soma daitezke askotan; eta ez harritu egunen baten **luki- ren** bat ikusten baduzu, egon badaude eta, nahiko beldurtiak diren arren. **Biborek, sugek** edo **subek** eta horien familiko asko ere ibiltzen dira mendie-

tako sasi artetik. Ez dakigu beneno daukaten edo ez, baina nor lotzen da hori igartzen horrelakoren bat ikustean? "Ez ukutu horreri ze horrek beneno deuke" modukoak askotan entzun ditut nik.

Badira parajeago izaten ohi ditugun eta hainbeste gustatzen ez zaizkigunak ere, hala nola, **erratoiak, saguk** eta **eskarabajok, arañek, erlek...** bezalako intsektuak. Baita hain astunak izaten diren **eulik** edo eta gaua gure odola zurrupatu guran pasatzen duten **eltxo** horiek ere.

Baserriko abereak, azkenik, badira oraindik ere Uribe Kostako zenbait txokotan; **astok, zaldik, bihorrak, idik, txarrik, ollo** eta **ollarrak, errebañu** edo

## « Kirikolatzak (kikirolatza, kirkiolatza) ere, kaminuetan soma daitezke askotan »

**artegi** bat (ardi txakurre inguruan dagoela) noiz edo noiz... baina horrelakorik ikusten jarraitzeko aukerarik izango dugu urte batzuk barru? m

Esakere "Gureak izan dozak, adiskide!"

Hemen erakutsi doguzen esakeratik bat sarri erabilteko moduko bada, hau da ,ba:uriolak ezpadire sutek dekuz, petrolio itsasora ez badoa tiroka eta bonbaka gabiltzez haren atzetik, mille aurrerakuntze deku, baia danak gero ekarten doskue "orde", eta kasik txarrena ixen leitena, gure lurre, gure planeta hau lotu barik kakaztuten gabiltzezela, ondiño Martitzera eta beste planeta ta inguru batzuetara botaten hasi gara gure makiñetxuk eta trapaserik. Horretan parajetan inor bizi bada hautxe deko gugaz batera erabilteko esakera aproposa: "hau akabu da, gureak izan dozan/ki".

Iñaki Gilisastin "Berba Lapikokoa" librun topako dozue esakeratu hau

## Gureberbake 4e5

### UDEN OSTERAKO ESAKUNE BATZUK

Testua: **Xabi Bilbao**

**Akaba da ude, edo sikanan udeko oporrak eta biajak gahienantzako: Berbakere 44n uderako esakune apropos batzuk ikusi genduzen. Seguru gauz sarri erabili dozuezela eta ederto etorri datzuezela, halan da ze hemen doatzue "konplementu": udeko kontuk akaba ta gero erabilteko esakune batzuk.**

**Oporrak akaba direzela ta lastime erakusteko:**

—Ené badá, bagauz **irillen** (\*): Kargutu barik pasa da dénpore!  
 —Ené amá, hólantxe da! Biber beharren yon ber dot eta óndiño buéltaka dekot buru yaietako atxurréaz!  
 —**áiko**, zénbet egun auki dauz **agostuk** ba? Ez da **zezeille** ixeten 28 dekozena?  
 —Baí, baia hau urte bisiestu da.  
 —Bisiestu? **Bestalá** ohina (obera) bázoaz hori atxurre kéntzen!

**Biajak eta konplikaziñok akaba direzela eta poztasune erakusteko:**

—Eskérnak! Bagáuz etxen akabun! Zénbet hobeto hemen beste inon báño.  
 —Eskérnak hasi direzela úmek eskolara barrivo! Ixen da sásoie! Zélaú bake!  
 —Eskérnak! Labadóre deku hámentxe! Badekot gogo zu alkoandara garbi batéaz ikusteko!  
 —Telebisiño! Eskerrak! Oin hasiko dodaz nik égitoko (benetako) opórrak hemen májo yarrite!  
 —Eskérnak hasi dala fútbola óstabere! Egon ezáñik ibil naz atletismo ta hólaú kirol grazilakok ikusten!

(\*) **Urteko illek:** beste baten aitetuko doguz astiroago, baia hemen doaz gure ingirun nahiko ezagunek direzen euskerazko izenak urteko hilentzako: **urtarrille, zezeille, marti, aprille, maietza, bagille, garagarille, agostu, irille, urriete, zemendi, abendu.**

(\*\*) **áiko:** hara! bestala: hobe (ikusí Berbakere 7).

# I aki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345  
**Algorta**

## BEHIN BATEAN

### LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA  
 Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

## Errotalde ileapaindegia

**HARTU TXANDA TELEFONOZ!!**

**T: 460 38 90**  
 Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

## GAVRKO

GIZONENTZA -  
 KO MODA

Telletxe 5  
 ALGORTA  
 T:

## Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
 T: 4910821  
 ALGORTA **HARTU TXANDA**

## UK aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

# 94 491 13 37

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa. Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo  
 uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31



gaizka escudero / villabotas-ekoa

## Pistoa

eta bakailao zatiak pil pil erara

**H**auek biak gure sukaldaritzako betiko plater bi dira, ezetz inoiz probatu biak nahastera? Ba emaitza primerakoa da! Hasteko pistoa egingo dugu. Lapiko batean, olio barik, kalabazina eta tipula (laukitan zatituak) su ahulean ipini euren ura askatu arte. Gero oliba olio, piper berdea eta berakatz aleak xerretan zatituak gehitu. Su ahulean eduki ordu erdiz. Noizean behin lapikokoa eragin. Gero tomateazal barik bota eta dena egin arte sutan eduki. Eginda dagoenean, arraultz irabiatuekin nahastu eta kitto. Bestetik bakailao xerrak laukitan zatitu eta pil pil erara presatatu. Hau da, zartagin batean sutan ipini berakatz. Urreztatzen denean aleak baztertu eta olio epeldu arte itxaron. Gero makailau zatiak bota eta eragin pilpila lortu arte. Platera azpiko argazkian bezala aurkeztu. On egin! <sup>m</sup>

osagaiak (bi lagunentzat)

kalabazina, kilo bi • kipula, kilo bat • tomateak, kilo eta erdi  
dozena erdi piper berde • berakatz • oliba olio • lau makailau xerra



itsaso arana / jolastoki-koa

## Ardoa edateko tenperaturak

«Tenperaturak eragin handia dauka ardoa edateko orduan; ardoaren ezaugarriak ere alda ditzake»

- **Ardo zuri eta lehorrak**  
8°-10°an edan behar dira. Zenbat eta tenperatura altuagoa, gehiago igarriko dugu alkohola; tenperatura baxuagoetan, garratzasuna.
- **Ardo zuri gozoak**  
6°an gutxi gorabehera edan; tenperatura honetan espresio gozoa eta frutazkoa nabarmentzen da.
- **Ardo gorriak**  
9° eta 12° bitartean, beltzetik ala zuritik, zeinetik hurren dauden begiratuta.
- **Ardo beltz arin eta gazteak**  
12° eta 16° bitartean, euren aroma eta egitura nabarmentzeko.
- **Ardo beltz gorpuzdunak**  
14° eta 17° bitartean, euren gorputza hobeto igartzeko.
- **Ardo beltz zaharrak**  
17° eta 18° bitartean, horrela euren bouquet eta espresioa hobeto antzemango ditugu.

## Zuri Haitz jatetxea

Aukera zabala Sopelako begetarianoan



Argazkian, Triki, Steve, Mikel eta Jon Ander

**2003ko urrian** ireki zituen ateak Zuri Haitz jatetxe begetarianoak, Asier eta Jon Ander Etxebarria, Mikel Errotaetxe eta Haritza Saratxagaren eskutik. Orduetik, eskaintza zabala eskaintzen dute janari begetarianoan. Bada, astegunetan, 9 eurotako menuak prestatzen dituzte, hasierako entsalada-buffet librea, kremaren bat eta aukerako hirugarren plater batez. Arratsaldeetan, hamburgerak, pizzak, errazioak, sandwichak... prestatzen dituzte. Asteakabuetan, bari-ku gabaz hasi eta domekara arte, ordea, 16,20 euroko menu berezia har daiteke; lau hasierako, aukerako plater bat eta postreaz osatutakoa. Orduan, pintxoz betetako barra ere ipintzen dute.

Sukaldari lanetan, Asier eta Steve ibiltzen dira, nazioarteko sukaldaritzak eta tradizionala uztartuz. Bada, bertan, janari arabiarra, txinatarra edo eta Hego Amerikakoa dasta daiteke. Beti ere, gure sukaldaritzan arruntak ez diren osagaiak gehituz. Aipatzekoa da, jantokian erretzea galarazita dagoela. Bestalde, gastronomía apartaz gozatzeko gain, artea begitatzeko aukera ere badugu Zuri Haitzen; izan ere, behar grafikoz egindako erakusketak aurkezten dituzte. Gainera, behar horiek salmentan daude; baita kamisetak, eskulanak... ere. <sup>m</sup>

**ZURI HAITZ jatetxea**  
Sertutxa 4, Sopela  
Telefonoa: 645 732 991

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

## Asado



¥ Zabalik egunero  
¥ Eguneroko menuak  
¥ Enpresa menuak  
¥ Menuak norberaren gustura


¥ Egunero karta berezia  
¥ Gaez dastatzeko menua astelehenetik-ostegunera  
¥ Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 - Tf.: 94 491 06 54  
ALGORTA

## Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI  
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR  
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T: 94 491 02 93

**Taberna Bern**  
Sarikobaso 4 - ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



**ITXASGANE**  
prentsa ¥ aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

**Arasa**

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa



Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

**OLATXO**  
altzariak  
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 Juan Bautista Zabala, 5  
AREETA ALGORTA  
T. : 94 464 89 94 T. : 94 491 13 94

**VILLABOTAS JATETXEA**



Menu merke eta askotarikoak  
Especialitateen karta  
Giro atsegina

T: 430 43 33  
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p><b>URA</b> t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Ez etsi. Egunen batean ailegatu zaizu hainbeste desio duzun hori. Bitartean gozatu ezazu bizitzaz, sarritan oihartzen ez bagara ere, gauza zoragarri asko dauzka-eta.</p>	<p><b>OTSOA</b> t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Katarro demasa hartu duzula badakit. Egun batzuk horrela pasa beharko dituzu, baina laster sendatuko zara. Osatutakoan, izena eman gimnasioan.</p>	<p><b>ADARRA</b> t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Azkenaldian ikutzen duzun guztia apurtzen ci duzu. Burua beste toki batean daukazulako gertatzen zaizu hori. Laster argituko da horrenbeste kezkatzen zaituen hori.</p>
<p><b>AITZURRA</b> t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Ez dakit goizetako laranja-zumoa den ala zer, baina pilak ehunetik ehunera beteta dauzkazu. Kontuz, datorren astean "bajoitxoa" eduki dezakezu-eta.</p>	<p><b>HOSTOA</b> t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Esaten duzuna zelan esaten duzun zaindu! Inguruko pertsona bat mindu dezakezu, eta horrek buruhauste handi samarra ekarriko dizu. Kiniela egin ezazu.</p>	<p><b>EGUZKIA</b> t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Joan zen asteburuan parrandarik egin ez, eta orangoan errebantxa dagokizula? Ba, izarrek diote domekako ajea munduko handiena izango dela. Zuk zeuk ikusi...</p>
<p><b>GARIA</b> t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Kaltea eragiten dizun pertsona horrengandik aldendu zaitzez berandu baino lehen; ireki begiak, asmo txarrakaz dabil-eta. Albiste on bat jaso dezakezu.</p>	<p><b>LASTOA</b> t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Gauzak aurpegira, <i>Lastoa!</i> Beti atzetik marmarrea... Horrela jarraituz gero, eskarmentu demasa hartuko duzu. Badaezpada, begiak ondo ireki.</p>	<p><b>IRATZEA</b> t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Animoooo!! Mundua ez dela hemen amaitzen! Laster helduko dira Gabonetako opor preziatuak, eta orduan bai, akabo beharreko burukominak! Bitartean, gora bihotza!</p>
<p><b>META</b> t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Kostata baina sendatu zara. Orain, sasoi polita daukazu aurretik: osasuntsu sentiituko zara, alai eta gauza mordoak egiteko gogoagaz. Hala ere, zaindu eztarri hori.</p>	<p><b>HAZIA</b> t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Beharrea fina zara, eta zure ugazabak ohartu dira. Epe motzera, agian, ez duzu fruiturik ikusiko, baina uste baino lehen etorriko zaizu merezitako saria. Pazientzia eta segi aurrera!</p>	<p><b>NEGUA</b> t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Datozen egunotan amodio eta lan kontuetan zortea edukiko duzu, eta azkenaldian daukazun osasun makala ere, indartu egingo zaizu. Zorionekoa saria. <i>Negua!</i></p>


**mungia**  
OKINdegia



Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA





denborapasa

HITZ GURUTZATU

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Taula honek hamaika beltzune ditu

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar., zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gaualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

Soluzioak

V	I	A	V	I	H	H	O	Z
O	R	R	I	A	I	P	A	E
D	I	R	A	A	U	A	V	
V	A	R	A	T	I	Z	O	
V	U	T	A	K	I	Z	I	K
S	A	Z	E	T	E	G	E	
T	O	A	B	A	N	T	R	A
V	N	E	T	R	E	S	A	V
K	A	N	O	Z	I	G	A	O
N	U	G	I	L	A	Z	I	B

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Medikuntza ikasketak egin zituen
- Politika gizon ezkertiarra
- Txilen erahil zuten irailaren 11 batean

> Aurrekoaren erantzuna: Joseba Sarrionandia

> Irabazlea: **Julen Errazti (Areeta) \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf: erreserbak: 94 676 07 61

astelehenetan itxita

cianoplan s.a. global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87  
944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua. ...eta gainera, fitxategien imprimaketa!



Algortako "Jone" trainerila txapeldun, 1980an

**Badirudi** iraila arraun munduarekin loturik dagoela, batez ere Kontxako estropadagatik. Horregatik aukeratu dugu argazki hau irailaren hasierarako, Xabier Lauzirika "Estrobok" egina. Orain 25 urte, hain justu ere Portu Zaharreko jaietan, San Lorentzo egunean, Zierbenan, Bizkaiko txapelketa eskuratu zuten Algortako arraunlariak, Mundakari aurea hartuz. Gainerako partehartzaileak Kaiku, Portugalete, Arkote, Santurtzi, Ondarroa eta Zierbena izan ziren.

Argazkia, bistan denez, estropadan bertan aterata dago, "Markitos" en aginduetara arraunlariak ziabogan zihardutela. Arraunlariak eurek Markitosi berari oparitutako argazkia da, sinadurak eta guzti. Antza denez, asko estimatzen zuten patroia gazte hauek, izan ere hiru urte lehenago, 1977an, trainerila berria erosi zutenean "Jone" izena jarri zioten, urte berean jaiotako Markitosen alabaren omenez. Hamar bat urte ibili zen patroia Markitos, 1975etik 1985era, gutxi gorabehera. Azken estropada Bermeon egin zuen. m

Azaltzen direnak:

Eduardo Rodriguez, Alfonso Ubeda, Goiri, Magunazelaia, Jon Etxebarria, Markos Bretos "Markitos" (patroia)

[aitormenak]

**GORKA IGARTUA** > aktorea

# “Objektu hegalaria ezezagunetan sinisten dut”

Testua: **Jon Urresti**



**Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik.** Naizena naiz.

**Zein animaliagaz zatoz bat?** Txakurrarekin.

**Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?**

Eva Forest idazlearen *Operación Ogro*. Asko irakurri ez ditudanez, horixe da datorkidan lehena eta azkena.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Ezer eduki ez eta daukatenarekin zoriontsuak direnak, baina aldi berean dagokiena aldarrikatzen dutenak.

**Zure jakirik gogokoena.** Tomate-entsalada.

**Aitortu dezakezun bizio bat.** Erretzea.

**Oporretara joateko lekurik aproposena.** Caños de Meca (Cadiz).

**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**

Faltsua izatea edo zerbait lortzeko gezurrak erabiltzea. Baina ez da egia ez nituzkeela barkatuko.

**Zer janzten duzu lo egiteko?** Kamiseta bat.

**Ezin zaitzke bizi...** Maitasunik gabe eta jan gabe.

**Zer gordetzen duzu sakeletan?**

Gauaren hasieran metxero bat, eta bukaeran bost edo hamar.

**Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.**

(Asko pentsatu ostean) Joe!... Kolore berdeko porroak.

**Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?**

Munduko gatazka armatu guztiak konpontzeko borondatea dagoela.

**Ohitura txarren bat...** Eskua ilean ibiltzea.

**...Eta sineskeriaren bat.** Objektu Hegalaria Ezezagunetan sinisten dut.

Bakarrik ez gaudela uste dut, zerbait badago eta ezkutatu nahi digute. Ez da sineskeria baina, aizue, OHEak badaude. Bakoitzak pentsa dezala nahi duena.

**Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?** Badakit zertan ez nintzatekeen

haragitutako: eskubiderik gabe herriak zapaldu dituzten horietan.

**Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?**

Markatu nauten pertsonekin egiten dut amets.

**Zure azken erokeria.** Andaluziako herrietan barrena bakarrik, betiko lagunik gabe, hogeitun egun pasatzea oporretan. m

**LABURREAN**— Arraldeko harrobi oparotik ateratako aktorea dugu Gorka Igartua (Ezkio-Itsaso, 1980). Orain dela bost urte aukeratu zuten, “*kasualitatez*”, Gutti pertsonaia antzezteko marka guztiak hautsiko duen *Goenkale*-n (Estatuko telesailik beteteranoenak hamaikagarren denboraldiari ekingo dio hil honen amaieran, eta 2.000 ataletara helduko da); beste telesail batean ere egin zuen pertsonaia hori, *Hasiberriak*-en, hain zuzen. Definitu ezin daitekeen orrazkera bitxiko mutil jator honek antzerkia egin du bere herriko Karmakros Antzerki Tailerra izeneko taldeagaz, eta gaur egun Ttanttakaren eskolan dabil, Donostian. Arrasateko kooperatiba batean beharrean hasi denez (elektronika eta ingeniariatza ikasketak egin ditu), ez du *Goenkale*-n jarraituko, “*hasieran behintzat*”. Eskiatzea gustuko du (sarri joaten ei da Jacara), eta berba-joko zalea dugu idazterakoan; “*hizketan, ordea, gauzak garbi esaten ditut, pentsatzen dudana*”.



**Euskaraz egin nahi baduzu...  
Euskaltegian, noski!**

Hizkuntzak ikasteko mirarizko metododirik ez dago. Baina, zorionez, azkar, erraz eta berme osoz ikasteko aukera duzu. Euskaltegian.

Laguntzaileak:



Antolatzaileak:

